

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2015

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-01 90 77](tel:945-01-90-77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526


AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	8
Munduko ekonomiaren bilakaera	8
Analisia herrialdeka	11
Espainiako ekonomia	14
EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	16
EKOIZPEN ARLOAK.....	16
Sarrera	16
Lehen arloa	17
Industria	18
Eraikuntza	22
Zerbitzuak	23
ESKARIA	25
Sarrera	25
Gastua azken kontsumoan	26
Kapital eraketa gordina	28
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	29
LAN MERKATUA	36
PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	40
ARLO PUBLIKOA	47
FINANTZA ARLOA	50

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2015ean, EAEko ekonomiak susperraldia finkatu zuen eta BPGa %2,8 handitu zuen, aurreko urtean lortutako tasa bikoiztuz. Gehikuntza hori oso garrantzitsua da eta bat dator 1980tik 2010era doazen hiru hamarkadetan eskuratu zen batez besteko balioarekin. Hori horrela den arren, ezin da ondorioztatu hazkunde erritmoa normaltasunera itzuli dela, zeren eta, neurri handi batean, bultzada kanpoko ezohiko faktore batzuen eskutik iritsi baitzen eta bultzada hori ez da berrituko datozen epealdietan, behintzat indar berarekin. Izan ere, 2016rako aurreikuspenak iradokitzen du BPGaren gehikuntza tasa leunduko dela. Aurreko urtean bezala, 2015ean ere hazkundearen protagonismoa barne eskariaren bultzada nabarmenak hartu zuen, kanpo arloak BPGaren gehikuntzari hamarren bakar bat ekarri zion bitartean, ingurune herrialdeekiko merkataritza harremanen geldotasunaren ondorioz.

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta NDF.

Alderaketa bat eginez, EAEko ekonomiaren gehikuntza munduko ekonomiarena baino zertxobait apalagoa izan zen erosteko ahalmen parekotasunean aurkezten denean (%3,1), hori baita gehien erabiltzen den neurria, baina handiagoa izan zen gehikuntza tasa merkatuko truke tasan kalkulatzeko bada. Neurri horretan, NDFk %2,5ean kokatu zuen munduko BPGaren

gehikuntza. Orobat, EAeko 2015eko tasak ekonomia aurreratuen multzoarena (%1,9) eta Euroguneko herrialdeena (%1,6) gainditu zituen.

Hain zuzen ere, munduko ekonomia %3,1 hazi zen (EAPan neurtuta) 2015ean, aurreko urteetan baino gutxiago, baina laurogeietan eta laurogeita hamarretan ohikoak ziren datuetatik nahiko hurbil. Moteltze hori garapen bidean dauden herrialdeetan bakarrik gauzatu zen, 2014an %4,6ko gehikuntza lortu ondoren, 2015ean %4,0 bakarrik hazi zirelako. Apaltzeko joera hori nahiko orokorra izan zen ekonomia eremu horren barruan eta protagonista nagusiak Txina eta petrolio ekoizten duten herrialde batzuk izan ziren, bereziki Errusia eta Brasil. Lehen kasuan, Asiako erraldoia ekoizpen ereduaren egiturazko aldaketa prozesu batean murgilduta dago, inbertsioetik kontsumora eta industriatik zerbitzuetara eramango duena. Prozesu hori modu ordenatuan gauzatzen ari da, nahiz eta merkatuek urduritasun handiko uneak bizi dituzten. Bertako BPGa 2014ko %7,3tik 2015eko %6,9ra igaro zen. Aipatu diren beste bi herrialdeen kasua kezkarriagoa da, zeren eta biek beherakada garrantzitsuak izan zituztelako BPGan (hurrenez hurren, %-3,7 eta %-3,8). Herrialde nagusien artean, India izan zen salbuespena, aurreko emaitza hamarren bat hobetu zuelako (%7,3), kasu horretan petrolioaren merkatzeari esker.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpenak
Ekonomia aurreratuak	42,9	1,9	0,8	Garatu gabeak	57,1	4,0	2,3
AEB	15,9	2,4	0,4	Txina	16,6	6,9	1,1
Eurogunea	12,2	1,6	0,2	India	6,8	7,3	0,5
Japonia	4,4	0,5	0,0	Errusia	3,3	-3,7	-0,1
Erresuma Batua	2,4	2,3	0,1	Brasil	3,0	-3,8	-0,1
Kanada	1,5	1,2	0,0	Mexiko	2,0	2,5	0,1
Besteak	6,5	2,1	0,1	Besteak	25,4	3,3	0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuen ziklo posizioa homogeneizatuz joan zen 2015ean zehar, baina ekonomia anglosaxoiarrak oraindik puntu aurreratuago batean zeuden. Izan ere, AEBak %2,4 hazi ziren, aurreko urtean bezala, eta Erresuma Batuak moteltzeko joera leun bati ekin zion eta %2,3ko

tasa eskuratu zuen, aurreko datua baino sei hamarren beherago dagoelarik. Japoniak, berriz, atzean utzi zuen 2014ko atonia eta %0,5eko gehikuntza tasa txikia lortu zuen, ekonomia horretaz dauden zalantza ugariak uxatzen ez dituen.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Munduko ekonomia	5,4	4,2	3,5	3,3	3,4	3,1
AEB	2,5	1,6	2,2	1,5	2,4	2,4
Japonia	4,7	-0,5	1,7	1,4	0,0	0,5
Txina	10,6	9,5	7,7	7,7	7,3	6,9
Europar Batasuna	2,1	1,8	-0,5	0,2	1,4	1,9
- Alemania	4,1	3,7	0,4	0,3	1,6	1,7
- Frantzia	2,0	2,1	0,2	0,7	0,2	1,2
- Erresuma Batua	1,5	2,0	1,2	2,2	2,9	2,3
- Italia	1,7	0,6	-2,8	-1,7	-0,3	0,8
- Espainia	0,0	-1,0	-2,6	-1,7	1,4	3,2
- EAE	0,6	0,2	-2,0	-1,8	1,4	2,8

Iturria: NDF (munduko ekonomia, Txina eta Japonia), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).


Oro har, Europar Batasunak aurreko bi urteetako hazkundera finkatzeko aprobetxatu zuen 2015. urtea eta %2,0tik hurbil utzi zuen gehikuntza tasa. Bide horretan, azpimarratzekoa da ekonomia espainiarrak eskuratu zuen bultzada sendoa (%3,2), gainontzeko herrialde handiena baino askoz ere biziagoa. Halaber, Frantziaren (%1,2) eta Italiaren (%0,8) tasak ere nabarmendu behar dira, oso abiapuntu atzeratutik zetozelako. Aitzitik, Alemaniak, 2014an Europako trenaren lokomotora izan baitzen, hamarren bakar bat hobetu zuen bere erritmoa. Europako ekonomiaren hazkundera kontsumoaren gehikuntza iraunkorrean oinarritu zen, bai publikoa bai, bereziki, pribatua, baina baita inbertsioaren bizitasunean ere, aipatu diren beste osagai horiek baino askoz ere gehiago hazi zelako. Euroaren balio galerak esportazioak bultzatu zituen arren, barne eskariaren bizitasunak inportazioak ere areagotu zituen, eta kanpo arloaren ekarpena, hala Eurogunean nola Europar Batasunean, negatibo samarra izan zen urte osoan.

Ingurune ekonomien susperraldiak sortu zuen testuinguruan, EAEko BPGa %2,8 hazi zen 2015ean, aurreko urteko emaitza bikoiztuz. Horri esker, bi ekitaldi kateatu ditu hazten eta beraietan berreskuratu dira krisian galdu ziren ia zazpi puntuetatik lau. Zehazkiago adierazita, 2008ko BPGa, hots, krisi aurretik hazkundera lortu zuen azken urtekoa, 100 egiten badugu, 2015eko maila 97,1 izango zen, azken zazpi urteko altuena.

BPGaren eta enpleguaren bilakaera EAEn

BPG. 2008 = 100

Enplegua. 2008 = 100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Enpleguari dagokionez, 2015. urtea ere ona izan zen eta %1,7ko gehikuntza jaso zuen. Beraz, lanaldi osoko 15.000 lanpostu garbi sortu ziren urteko batez bestekoan. Enplegua sortu zuen bigarren urte jarraitua izan zen. Sektoreka, sortu zen enplegu gehiena zerbitzuetan gauzatu zen, %2,5eko gorakada jasota. Horiei lehen arloaren ekarpena (%1,1) gehitu behar zaio, baina arlo horren tamaina txikiak 100 lanpostu ingurura mugatzen du bere hazkundera. Aitzitik, hala industriak nola eraikuntzak langileak galdu zituzten berriro, baina aurreko urteetan baino erritmo motelagoan. Zehazkiago, industriaren enplegua %0,4 gutxitu zen eta eraikuntzarena, berriz, %0,3.

BPGaren hazkundera eskariaren aldetik aztertzen bada, dagoeneko 2014an hautematen zen eredu aldaketa baieztatuta geratzen da. Eredu aldaketa horren arabera, kanpo eskariak tokia utzi dio barne eskariari ekonomiaren motorra izateko. Izan ere, 2009-2013 epealdian, kanpo saldoaren emaitza ona baliagarria izan zen barne eskariaren ahultasuna konpentsatzeko, gutxienez neurri batean. Halere, barne eskaria suspertu denean, kanpo saldoaren ekarpena gutxitu da. Zehazkiago adierazita, 2015ean barne eskariak 2,7 puntu ekarri zizkion BPGaren gehikuntzari eta kanpo saldoak hamarren bakar batera mugatu zuen bere ekarpena, azken zortzi urteetako txikiena baita.

EAEko BPGari eginiko ekarpenak



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren bizitasuna azken kontsumoan oinarritu zen, %2,8 hazi baitzen. Kapital eraketa gordinak, berriz, %2,0ko tasa jaso zuen, nahiz eta urte osoan zehar bizkortzeko joera etengabea erakutsi zuen. Familien kontsumoak (%3,1) hedatzeko joera bizia erakutsi zuen. Horren alde jokatu zuten lehenago aipatu den enplegu sorrerak, gastatzeko gaitasuna igotzen duen inflazio apalak, etorkizunari buruzko igurikimenen hobekuntzak, kreditua lortzeko erraztasun handiagoak eta zuhurtziazko aurrezki txikiagoak. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak gorakada bikaina (%6,5) jaso zuen, gainontzeko inbertsioak aurreko urteko emaitza berdindu zuen bitartean (%0,0).

Ekonomia sektoreen arabera, adierazi behar da 2015ean bere horretan jarraitu zuela EAEko ekonomiaren bi oinarri nagusien arteko oreka, hots, industriaren eta zerbitzuen artekoa, biak erritmo garrantzitsutan hazi zirelako. Izan ere, industriaren balio erantsia %2,7 areagotu zen, hiruhileko batetik hurrengora etengabeko bizkortzea erakutsiz, barne zein kanpo eskariek bultzatuta. Beste aldetik, zerbitzuek %3,0ko gehikuntza eskuratu zuten, aurreko urtean lortutakoa bikoiztuz. Bizitasun horretatik urrun eraikuntza kokatu zen berriro, 2014aren aldean ez baitzen ezer aldatu (%0,0), nahiz eta zazpi urteko jaitsiera etengabeen epealdiari amaiera eman zion. Eraikuntzaren doikuntza horren ondorioz, EAEko ekoizpen egituran daukan pisua %5,5era jaitsi da, 2007an BPGaren %9,5 bereganatu zuen bitartean.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Barneko azken kontsumoa	1,2	-0,9	-1,4	-1,2	1,5	2,8
Familien kontsumoko gastua	0,9	-1,3	-1,6	-1,1	1,6	3,1
Herri administrazioen kontsumoa	2,2	0,7	-0,9	-1,8	1,1	1,6
Kapital eraketa gordina	-3,9	-1,3	-7,0	-4,9	-0,6	2,0
Ekipamenduko ondasunak	-2,5	3,7	-4,9	-3,4	3,0	6,5
Gainontzekoa	-4,3	-2,9	-7,7	-5,5	-2,1	0,0
Barne eskaria	-0,1	-1,0	-2,8	-2,1	1,1	2,6
Esportazioak	7,8	1,4	-4,7	0,9	3,6	-0,2
Inportazioak	5,5	-0,6	-5,7	0,3	3,0	-0,2
BPG (m.p.)	0,6	0,2	-2,0	-1,8	1,4	2,8
Lehen arloa	20,8	7,6	10,9	-3,5	-10,0	7,4
Industria	2,5	1,3	-5,2	-2,7	1,5	2,7
Eraikuntza	-7,9	-7,6	-7,6	-4,6	-3,2	0,0
Zerbitzuak	0,7	0,8	-0,4	-1,1	1,5	3,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,4	-0,8	-2,5	-1,4	2,0	3,1
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	3,9	3,4	0,4	0,6	2,1	2,3
Gainontzeko zerbitzuak	-0,8	0,6	0,5	-1,9	0,9	3,2
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	0,5	0,3	-2,1	-1,8	1,1	2,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	-0,1	-1,1	-1,6	3,8	3,0

Iturria: Eustat.

Zerbitzuetako talde guztiek hobetu zuten balio erantsia 2014an baino gehiago. Hain zuzen ere, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen barruan arlo publikoaren pisua handia baita, %2,3 areagotu zuen bere balio erantsia. Hazkundera %3,1 izan zen merkataritza, ostalaritza eta garraioan. Gainontzeko zerbitzuak %3,2 hazi ziren.

Barne eskariaren gehikuntza sendoak ez zuen goranzko presiorik ekarri kontsumoko prezioetara, lehengaien merkatze handiak, bereziki petrolioaren salneurriak, baldintzatu zituelako. Hain zuzen ere, Brent motako upelaren prezioa %47 merkatu zen 2015ean dolarretan neurtzen denean, eta %37, berriz, eurotan kalkulatzen denean. Hori dela eta, salneurrien adierazle nagusiak, hots, BPGaren deflatoea eta KPIa, balio negatibotan kokatu ziren. Inflazio negatibo horrek eta soldaten igoera apalak behera eramane zuten langile bakoitzeko kostu totala 2015ean. Horri gehitzen badiogu produktibitatea %1,0 handitu zela ondorioztatzen da unitateko lan kostuek, lehiakortasuneko adierazle bat baita, portaera ona izan zutela 2015ean.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB28=100)	126,6	122,8	120,7	118,4	118,8	---
BPG erreala merkatu prezioetan	0,6	0,2	-2,0	-1,8	1,4	2,8
Enplegua	-1,3	-0,9	-3,3	-3,0	0,2	1,7
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	2,0	1,2	1,4	1,3	1,1	1,0
BPG nominala merkatu prezioetan	2,1	0,7	-1,9	-1,3	1,6	2,7
BPGaren deflatoea	1,5	0,4	0,1	0,5	0,2	-0,1
KPI (urteko batez besteak)	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2	-0,3
Kostu guztiak langile bakoitzeko	1,4	0,6	0,7	1,7	-1,0	-0,6
Langabezia tasa	9,1	10,8	11,8	14,3	14,9	15,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2015ean, munduko ekonomia jarduerak pausuak eman zituen suspertzeko bidean, baina hazkunde tasa zertxobait moteldu zen aurreko urtean lortutakoaren aldean. Azaleratzen ari diren hainbat herrialderen egonkortasunaz dauden ziurgabetasun makroekonomikoak, lehengaien salneurri txikiak eta merkataritza salerosketen jaitsiera dira, truke tasen eta kapital fluxuen gorabehera gero eta handiagoekin batera, gehikuntza txikiago hori azaltzen duten arrazoi nagusietako batzuk. Zehazkiago adierazita, NDFren lehen zenbatespenen arabera, munduko BPGa %3,1 hazi zen 2015ean, hots, aurreko urtean eskuratutako tasa baino hiru hamarren gutxiago. Tasa hori, azken urteetan jasotakoaren antzekoa den arren, krisia hasi zenetik eskuratu den txikiena da, salbuespen bakarra 2009an pairatutako amiltzea (%0,0) delarik. Halaber, agerian uzten ditu munduko ekonomia nagusi batzuek aurrean dituzten zailtasunak hazkundera suspertzeko.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK


	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Mundua	3,4	3,1	3,2	2,8	---	---
Ekonomia garatuak	1,8	1,9	1,4	0,3	7,3	6,7
AEB	2,4	2,4	1,6	0,1	6,2	5,3
Japonia	-0,0	0,5	2,7	0,8	3,6	3,4
Europar Batasuna	1,4	1,9	0,5	0,0	10,2	9,4
Alemania	1,6	1,7	0,8	0,1	5,0	4,6
Frantzia	0,2	1,2	0,6	0,1	10,3	10,4
Erresuma Batua	2,9	2,3	1,5	0,0	6,1	5,3
Italia	-0,3	0,8	0,2	0,1	12,7	11,9
Espainia	1,4	3,2	-0,2	-0,6	24,5	22,1
Garapen bidean daudenak	4,6	4,0	4,7	4,7	---	---
Asia	6,8	6,6	3,5	2,8	---	---
Txina	7,3	6,9	2,0	1,4	4,1	4,1
Amerika latinoak eta Karibea	1,3	-0,1	4,9	5,5	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	2,8	3,5	3,8	2,9	---	---

Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.


Ekonomia eremuka, herrialde aurreratuetan lortu zen hobekuntza txikia ezerezean geratu zen azaleratzen ari diren ekonomiek nozitu zuten moteltzearen ondorioz. Azken herrialde horiek oso portaera heterogeneoa erakutsi zuten herrialde eta eremuen artean. Azkenik, inflazioaren presioak gutxitu ziren, oro har, herrialde aurreratuetan, eta goranzko joera arinari eutsi zioten garapen bidean dauden herrialde batzuetan.

Barne produktu gordina Urte arteko aldakuntza tasak


Ekonomia garatuak




Azaleratzen ari diren ekonomiak



Europar Batasuna



AEB



Iturria: NDF eta Eurostat.

Munduko ekonomiaren hazkundera ekonomia aurreratuek erakutsi zuten sendotasunean oinarritu zen. Finantzaziorako baldintza oso egokitzaleek, lan merkatuen hobekuntzak, lehengaien prezio apalek eta arlo pribatuaren zorgabetze prozesuaren eragin kaltegarrien gutxitzeak osatzen zuten orduko testuingurua. Zehazkiago adierazita, ekonomia aurreratuek %1,9 hazi ziren urteko batez bestekoan, AEBetako sendotasunak eta Europar Batasunaren bizitasun berreskuratuak bultzatuta. Beraz, 2014an baino hamarren bat gehiago hazi ziren, azken hogeita bost urteko batez bestekotik (%2,1) hurbil. Hala eta guztiz ere, eta eremu hori osatzen duten herrialdeetan joera orokorra hobekuntzakoa izan zen arren, haietako batzuetan oraindik irauten dituzten desorekek alde handiak erakutsi zituzten beraien artean. Izan ere, Europar Batasunaren barnean BPGaren hazkunde tasak Greziako %-0,2aren eta Maltaan eskuratutako %6,3aren artean kokatu ziren.

Azaleratzen ari diren ekonomiek, berriz, moteltzera jo zuten berriro, 2010ean jaso zuten %7,5 hartatik bizi duten bosgarrena baita. Apaltze horren azpian, garapen bidean dauden ekonomia nagusiez dagoen ziurgabetasuna, enpresen jarduerarako giro ezegokia eta finantzaziorako baldintza gogorragoak daude. Hain zuzen ere, lehengaien prezioen beherakadak produktu horiek esportatzen dituzten ekonomien moteltze bizia eragin zuen. Horixe da Amerika Latinoa eta Karibea biltzen dituen eremuaren jaitsierak islatzen duena, 2015ean %0,1 murriztu baitzen. Jaitsiera hori 1983tik jaso duen bigarrena da, 2009ko krisi gogorrean bizi izandakoa ere kontuan hartuta. Venezuela nabarmendu behar da bere egoera prekarioarengatik, bigarren beherakada jarraitua kateatu zuelako eta %-5,7ko datua eskuratu zuelako, 2003tik inoiz izan duen okerrean. Halaber, prezioek neurririk gabe egin zuten gora eta inflazioa %158aren gainetik kokatu zela kalkulatu da. Brasil ere kaltetuta atera zen koiuntura horretan eta bertako BPGa %3,8 murriztu zen. Industria eta zerbitzuak tasa negatibotan murgilduta daude, 1990etik bizi duen atzeraldirik bizienean.

Halere, prezioen jaitsierak on egin zien lehengaiak inportatzen duten herrialdeei, eusteko ahalmen handiagoa erakutsi baitzuten, nahiz eta bizitasun apur bat galdu zuten aurreko urteetan jasotako hazkunderen aldean. Zehazkiago, Asian, India izan zen ekonomia dinamikoenetakoa bat, BPGaren hazkundera %7,3an kokatuta, hots 2014an baino hamarren bat gehiago. Txinak, ordea, lurreratze leunarekin jarraitu zuen eta %6,9 hazi zen, aurreko urteko emaitza baino lau hamarren gutxiago jasota. Azaleratzen ari den Europak bakarrik eskuratu zituen 2014koak baino hazkunde handiagoak, Eurogunearen hazkundeak izan zuten suspertzeak, petrolioaren merkatzeak eta finantzaziorako baldintza egokiek lagundu ziotelako. Hain zuzen ere, eremu horretako herrialde ia guztiek aurreko urtekoak baino emaitza hobekak lortu zituzten eta eremuko BPGa %3,5 hazi zen, 2014an lortutako datua baino zazpi hamarren gehiago direlarik.

Analisia herrialdeka

Azken urteetan eta 2013 arte, Txinako ekonomia inbertsioan eta aldeko kanpo saldo batean oinarritu zen. Hain zuzen ere, 2000. urtean, inbertsioaren kuotak (zati handiena publikoa zen) BPGaren %35 biltzen zuen, eta urtez urte gorantz egin zuen, 2013an BPGaren %48 bereganatu arte. Aitzitik, kontsumo pribatuak pisua galdu zuen eta 2013an ekonomia jardueraren %36 hartu zuen. Horrek esan nahi du hamahiru urte horietan BPG errearen batez besteko hazkundera batez ere inbertsioaren bultzada esanguratsu batean oinarritu zela. Hala eta guztiz ere, ekonomia eredu hori ez zen nahikoa izan epe luzean hazkunde orekatua eta jasagarria lortzeko, eta ezinbestekoa zen beste eredu batera igarotzea, kontsumo pribatua eta zerbitzuetan oinarrituko zena.

2013tik eredu aldaketa horren ondorioak begi bistakoak dira BPGaren hazkunde zenbakietan, urratsez urrats apaldu direlako. Izan ere, 2015. urtean ekonomiaren etengabeko moteltzeak aurrera egin zuen, inbertsioaren gehikuntza erritmoa galgatu zelako eta esportazioen bilakaera gehiago ahuldu zelako. Aitzitik, kontsumo pribatuak eta zerbitzuek goranzko norabidea bizkortu zuten. Sektore horrek, lehenengo aldiz, Txinan sortutako aberastasun guztiaren %50 baino gehiago bereganatu zuen, %50,5era iritsita, 2014an bere pisua %48,1 izan zen bitartean. Zehazkiago, BPGaren hazkundera apaldu egin zen 2015ean, %6,9an kokatu arte, azken hogeita bost urteko tasarik txikiena baita. Halere, Txinako agintarien ustez, moteltze hori normaltasun berriaren ezaugarria da eta edozein krisi mota baztertuta dago.

AEBetan, ekonomia jarduerak sendo jarraitu zuen eta %2,4 areagotu zen 2015ean, aurreko urteko emaitza bera errepikatuz. Barne eskariak bultzatu zuen hazkunde osoa, kanpo arloak sei hamarren kendu zizkiolako jardueraren bilakaerari. Kontsumo pribatua eginiko gastua altua izan zen, finantzaziorako baldintzak oraindik egokitzailak zirelako, prezioak gutxi igo zirelako eta kontsumitzaileen konfiantza areagotu zelako. Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatua %3,1 hazi zen eta 2,1 puntu ekarri zizkion ekonomia jarduerari. Aipamen berezia merezi du gastu publikoaren bilakaerak, zeren eta BPGari hamarren bakar bat eman bazion ere, hazkunde positiboak berreskuratu zituelako, lau urtez jarraian jaitsierak pilatu eta gero.

Lan merkatuak bizitasun handia erakutsi zuen urte osoan zehar. Izan ere, 2015ean ekonomia estatubatuarrak 2,65 milioi enplegu sortu zituen eta kontratazioari dagokionez bigarren urte onena izan zen 1999tik, 2014an lortutako 3,1 milioi enpleguen ondoren. Langabezia tasa %5,0ra murriztu zen abenduan eta urte osoko batez bestekoa %5,3an kokatu zen. Prezioen bilakaerari dagokionez, inflazioak oso maila txikietan jarraitu zuen urte osoan zehar, %0,0tik

hurbil, energiaren merkatze biziaren ondorioz eta 2014ko bigarren seihilekotik dolarrak izan duen balio galerarengatik.


Japoniako ekonomia krisiaren ondorioak pairatzen ari da 2008tik eta ez da gai susperraldia finkatzeko. 2010ean hazkunde bizia lortu zuen, neurri handi batean faktore estatistikoak eraginda, baina 2011n tsunamiaren hondamendiak esportazioak eta kontsumoa kaltetu zituen, eta ekonomia japoniarrak behera egin zuen berriro. Bazirudien 2012an eta 2013an ekonomiak suspertzeko bidea aurkitua zuela, baina 2014an BEZaren igoera garrantzitsuak kalte egin zion berriro hazkunderari, susperraldia zapuztuz. 2015ean, BPGa %0,5 hazi zen, aurreko urteko emaitzaren aldean hobekuntza garrantzitsua baita, baina agerian uzten du Japoniako ekonomiaren ahuldadea. 2015ean kontsumo eta inbertsio publikoek hazkundera finkatu zuten, kontsumo pribatuak atzera egin zuelako berriro eta esportazioek emaitza okerragoa jaso zuten, Txinako gorabeherarengatik eta yenaren balio irabaziarengatik.

BEZaren goranzko eraginak desagertu zirenean, inflazioa moteldu zen eta urteko batez bestekoa %0,8ra jaitsi zen, 2014an %2,7an kokatu zen bitartean. Beraz, inflazioa urrun dago Japoniako gobernuak ezarri zuen %2,0ko helburutik. Datu positiboa lan merkatuaren eskutik iritsi zen, non langabezia tasak beheranzko joerari jarraipena eman baitzion eta urte amaieran %3,3an kokatua baitzen. Urteko batez bestekoa %3,4 izan zen, 1987tik jaso den txikiena eta ekonomia aurreratuetan jaso den apalenetako bat.


Europar Batasunean, ekonomia jarduerak bilakaera egonkorra erakutsi zuen 2015ean zehar. Moneta politika egokitzaileri eta petrolioaren salneurri oso apalei esker, kontsumo pribatua eta inbertsioa sendo hazi ziren eta BPGaren oinarri behinena izan ziren, baina barne eskariaren agregatu guztiek hamarrenak ekarri zizkieten hazkunderari. Are gehiago, Kontinente Zaharraren sendotasuna dela eta, garatzen ari diren herrialdeen moteltzeak eta finantza alorreko zurrumbiloek ia ez zuten eraginik izan eremuaren hazkunderan, %1,9 hazi baitzen, 2014an baino puntu erdi bat gehiago, susperraldia finkatuz. Zehazkiago adierazita, eremuko ekonomia nagusien artean, Erresuma Batuak bakarrik ezagutu zuen moteltze neurritsu bat (2014ko %2,9tik 2015eko %2,3ra jaitsi zuen tasa), inbertsioaren apaltzeak, bereziki etxebizitzan eginikoak, eta kontsumo publiko txikiagoak eraginda. Alemanian, BPGaren gehikuntza 2014ko %1,6a baino zertxobait handiagoa izan zen. Urte horretan nabaria zen dagoeneko susperraldia, 2013an lortutako %0,3 haren ondoren. Barne eskariaren bultzadak lagundu zuen hazkunderan, Frantzian gertatu zen bezala. Herrialde horretan kontsumoaren egonkortasunak eta inbertsioaren nolabaiteko hobekuntzak, ez baitzuen behera egin aurreko bi urteetan bezala, bide eman zioten BPGari %1,2 hazteko eta azken hiru urteetako geldotasunetik irteteko.

BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako Estatistika Erakunde Nazionala, Japoniako Estatistika Erakundea eta Eurostat.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasak hoberantz egin zuen berriro eta 2015eko amaieran %9,4an zegoen, 2014an baino zortzi hamarren beherago. Tasa horrek adierazten du Europar Batasuneko langabeen kopurua 1,9 milioi pertsonatan baino gehiagotan murriztu zela. Nabarmendu ziren Alemania, Erresuma Batua eta Hungaria, alde batetik krisian galdutako lanpostuak berreskuratu zituztelako eta, beste aldetik, beraien lan merkatuetan zeuden langabeak Atzeraldi Handia baino lehen zeudenak baino gutxiago zirelako. Beste muturrean kokatu ziren Grezia (%24,9), Espainia (%22,1) eta Kroazia (%16,3), galdutako enpleguaren zati bat berreskuratu zuten arren, oraindik oso urrun daudelako krisi aurreko mailetatik. Azkenik, petrolioaren eta energiaz bestelako lehengaien prezioen beherakadak inflazio tasa baldintzatu zuen berriro, neurri handi batean Txinako eskaria jaitsi zelako, herrialde hori baita lehengai metaliko jakin batzuen eskatzaile behinena. Aurreko guztiaren ondorioz, Europar Batasuneko KPIa hazkunde hutsalaren inguruan egon zen 2015. urte osoan zehar eta baita hiru aldiz tasa negatibotan kokatu ere.

Espainiako ekonomia

2015ean, Espainiak 2014an hasi zuen susperraldia modu nabarian finkatzea lortu zuen, bosturteko batean atzeraldian egon ondoren. Hain zuzen ere, ekonomia espainiarra %3,2 hazi zen, aurreko urtean baino 1,8 puntu gehiago, eta Europako herrialdeen lehen tokietan kokatu zen. Gehikuntza hori 2007tik lortu duen handiena da eta barne eskarian oinarritu zen, kanpo saldoak puntu erdi bat kendu ziolako ekonomia jarduerari. Kontsumo pribatua %3,1 gehitu zen, interes tasa txikiak eta lan merkatuaren hobekuntzak lagunduta. Orobat, inbertsioa, bereziki ekipamendurako ondasunetan eginikoa, %10,0etik gora areagotu zen. Eskaintzaren ikuspegitik, lehenengo aldiz zortzi urtean, sektore guztiak gehikuntza tasa positiboak lortu zituzten. Industriak susperraldia finkatu zuen eta eraikuntzak azkenean hazkudearen bidea berreskuratu zuen. Izan ere, 2014ko emaitzaren aldean zazpi puntu luze irabazi zituen. Datu negatibo bakarra finantza eta aseguru jardueren eskutik iritsi zen, berriro behera egin zutelako. Hala ere, gainontzeko atalen bilakaera onak jaitsiera hori konpentsatu zuen eta zerbitzuen hazkunde tasa %3,1era gorarazi zuen.

Ekonomia jardueraren sendotasuna lan merkatura hedatu zen eta azken urtebetean lanaldi osoko 485.000 lanpostu baino gehiago sortu ziren. Sektoreen bilakaerarekin bat eginez, adar guztiak enplegua sortu zuten, baita finantza eta aseguru jarduerenak ere. Eraikuntza izan zen sektorerik dinamikoena (%6,0), ondoren zerbitzuak eta industria zeudela, biek erritmo bertsuarekin. Aurreko guztiaren ondorioz, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua %3,0

handitu zen 2015ean, hots, ia atzeraldiaren erritmo berean. Dena dela, ia hiru milioi lanpostu falta dira oraindik garai hartako kopuru osoa berreskuratzeko. Azkenik, erregaien salneurrien beherakadak eragin handiagoa izan zuen Espainiako ekonomian eta bederlatzi hilekotan bertako KPIa aldakuntza tasa negatibotan murgildu zen. Aipatu den guztia dela eta, KPIaren 2015eko aldakuntza tasa %-0,5ean kokatu zen eta Eurogunearekiko inflazio tartea puntu erdi batekoa izan zen, Espainiaren aldekoa.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012(B)	2013(B)	2014(A)	2015(A)
Azken kontsumoko gastua	0,6	-1,8	-3,8	-3,0	0,9	3,0
-Familien gastua kontsumoan	0,2	-2,4	-3,6	-3,1	1,2	3,1
-Administrazioaren gastua kontsumoan	1,5	-0,3	-4,5	-2,8	0,0	2,7
Kapital eraketa gordina	-4,9	-6,9	-7,1	-2,5	3,5	6,4
Esportazioak	9,4	7,4	1,1	4,3	5,1	5,4
Inportazioak	6,9	-0,8	-6,2	-0,3	6,4	7,5
BPG	0,0	-1,0	-2,6	-1,7	1,4	3,2
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	2,1	4,4	-11,0	16,5	-3,7	1,9
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	3,6	-0,2	-4,9	-5,2	1,2	3,4
Eraikuntza	-14,5	-12,8	-14,3	-9,8	-2,1	5,2
Zerbitzuak	1,3	0,7	-0,4	-0,6	1,9	3,1
-Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	1,5	-0,1	-0,6	0,1	3,2	4,8
-Informazioa eta komunikabideak	3,9	-0,2	2,2	0,7	4,7	4,7
-Finantza eta aseguru jarduerak	-3,3	-2,4	-3,6	-7,8	-1,0	-0,9
-Higiezinen jarduerak	2,0	2,8	2,0	1,6	1,2	0,8
-Jarduera profesionalak	-1,4	2,3	-1,3	-1,9	3,4	5,8
-Administrazio publ., osasuna eta hezkuntza	2,4	0,9	-0,8	-1,1	-0,4	1,7
-Jarduera artistikoak eta olgetak	1,4	-0,2	-1,4	-0,7	4,4	4,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,1	-5,6	-4,4	-2,9	0,8	2,8
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	2,0	3,0	2,4	1,5	-0,2	-0,6
-Enplegua	-2,6	-2,8	-4,9	-3,5	1,1	3,0

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE.

EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

Ekoizpen arloak

Sarrera

2015ean, EAEko barne produktu gordina %2,8 hazi zen eta hazkunde horrek goranzko norabidea marraztu zuen urte osoan zehar, gero eta handiagoak ziren urte arteko tasa positiboak jasoz. Horri esker, EAEko ekonomiak aurreko urtean hasi zuen susperraldia finkatu zuen. Printzipioz, gorakada sendoa eta dinamikoa da. Munduko testuinguru ekonomikoan bizi diren alderdi batzuek lagundu dute suspertze horretan, hala nola petrolioaren prezio merkeak, euroaren ahultasunak eta Europako Banku Zentralak ezarri duen moneta politika egokitzailak. Termino nominaletan, EAEko BPGa %2,7 hazi zen urte arteko tasan, deflatoarea zertxobait negatiboa izan zelarik.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2014	2015	2014	2015	2014	2015
Lehen arloa	-10,0	7,4	-2,2	1,1	-8,0	6,3
Industria	1,5	2,7	-2,2	-0,4	3,8	3,1
Eraikuntza	-3,2	0,0	-3,0	-0,3	-0,2	0,3
Zerbitzuak	1,5	3,0	1,3	2,5	0,2	0,4
Guztira	1,1	2,8	0,2	1,7	0,9	1,0

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera adar guztiek atzean utzi zituzten aldakuntza tasa negatiboak 2015ean. Sektore guztietan, urteko batez besteko bilakaerak etengabeko hobekuntza marraztu zuen hiruhileko batetik hurrengora. Esate baterako, lehen arloak, berezkoa duen portaera gorabeheratsuaren barnean, %7,4ko gehikuntza lortu zuen, aurreko bi urteetan tasa negatiboak jaso eta gero. Beste aldetik, EAEko industriak eskertu zituen barruko suspertzea eta kanpoko bizitasuna, biek industria jardueraren gehikuntza nabarmena lagundu zutelako. Eraikuntzari

dagokionez, narriadura leundu zen eta urte amaieran balio erantsiaren hazkundeari eginiko ekarpena, urteko batez bestekoan, hutsala izan zen. Tasa hori negatiboa ez den lehenengoa da 2008tik. Azkenik, zerbitzuek ere gora egin zuten 2015ean eta atal guztiek bat egin zuten goranzko norabide horretan. Horren ondorioz, urte arteko tasa %3,0ra iritsi zen, azken sei urteko gehikuntza tasarik gorena baita.

Lehen arloa

Lehen arloak %7,4 areagotu zuen bere balio erantsia 2015ean, aurreko urtean %10,0eko beherakada nozitu ondoren. Unean uneko prezioetan, 2015eko aldakuntza tasa %6,7 izan zen, 2014an %0,7ko jaitsiera jaso zen bitartean.

Nekazaritzaren azpiatalari dagokionez, 2015ean ekoizpenaren balioa handitu zen, ekoiztako kantitateak hazi zirelako, prezioak zertxobait jaitsi ziren arren. Ekoizpenak erakutsi zuen joera positiboa hainbat produktutan oinarritu zen, hala nola ardoan, frutan, ortuarietan eta patatan. Mahastizaintzaren eta ardogintzaren kanpaina goiztiarra ona izan zen, hala kalitatean nola kantitatean, aldeko klimatologiak ekoizpen eta heltze homogeneoa ekarri zuelako. 2015ean, Nekazaritza Politika Erkideak (NPE) interes ekologikoa duten laborantzei buruz ezarri zituen errekerimendu berrien ondorioz, lekadunak ereiteko bideratutako azalera oso nabarmen handitu zen. Hala eta guztiz ere, ekoizpenaren ikuspegitik, ez zen urte ona izan produktu horientzat.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015
BEG bolumeneko indizea	10,9	-3,5	-10,0	7,4
BEG uneko prezioak	16,1	0,1	-9,4	6,7
Deflatorea	4,7	3,8	0,7	-0,7
Enplegua	0,8	-5,4	-2,2	1,1
Produktibitatea	10,1	2,0	-8,0	6,3

Iturria: Eustat.

Beste aldetik, abeltzaintzaren ekoizpenak hazkunde txikia izan zuen, baina prezioek beherakada garrantzitsua izan zuten. Arrazoi horiengatik abeltzaintzaren ekoizpenaren balioa jaitsi zen. Gehien handitu ziren ekoizpenak behi esnearena eta arrautzena izan ziren. Basogintzari dagokionez, 2015eko ezaugarri nagusiak mozketen jaitsiera eta intsinis pinuaren eta beste egur batzuen prezioak izan zuen igoera izan ziren.

Arrantza sektorea aztertzeke orduan, gertakari esanguratsuena da 2015eko kanpainak aurreko urtekoa berdindu zuela. Egonkortasun horren atzean, antxoaren kanpainan lortutako balioaren jaitsiera, tamainagatik eta prezioagatik, eta hegaluzearen balioaren gorakada sendoa daude, azken hau Kantauriko uretara itzuli zelako.

Industria


Inguruneke ekonomia garatu gehienetan, 2015. urtean industriaren susperraldia finkatu zen eta adierazle guztiek bizkortzeko joera neurritsua adierazi zuten. EAEko industriak hazkunde dinamiko hori bera erakutsi zuen eta sektoreak %2,7ko gehikuntza tasa aurkeztu zuen, aurreko urteko emaitza puntu luze batean gaindituz. EAEko industria gehiago haztea ahalbidetu zuten faktore behinenak hauek izan ziren: alde batetik, EAEko esportazioen helburua diren ekonomien hazkunde positiboa eta, beste aldetik, bertoko barne eskariaren bultzada. Egoera horrek ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioaren gehikuntza garrantzitsu bat ekarri zuen berarekin.

Industriaren balio erantsiak bi urtez jarraian hazkunde tasa positiboak jaso dituen arren, 2015eko balio erantsia krisiaren aurreko mailatik beherago zegoen oraindik. Horrek agerian uzten du Atzeraldi Handiaren eta ondorengo berrerorikoaren eraginak bereziki industria kaltetu zuela.


EAEko industriak urtean zehar izan zuen bilakaerak bizkortzeko joera etengabea eta gero eta biziagoa erakutsi zuen hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean. Industriaren balio erantsiaren bilakaera positiboak bat egin zuen Eustatek zenbatetsi zuen IPIaren joerarekin. 2015ean, adierazle horrek sendotasun handiagoa izan zuen EAEn inguruneke ekonomia nagusietan baino.

Industria ekoizpenaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espania



EAE



Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta Eustat.

IPIaren ziklo bilakaeraren barnean, ondasunen helburu ekonomikoen arabera portaerak hazkunde positiboak jaso zituen 2015ean. Ekipamendurako ondasunen eta kontsumorako ondasunen ekoizpenak neurri handiagoan ezagutu zuten bizkortze garrantzitsu bat, ondoren energiaren eta bitarteko ondasunen suspertzea zegoelarik. Horiek horrela izanda, EAEko industria produkzioaren indizeak batez besteko hazkunde positiboa izan zuen eta suspertzeko joera garbi batekin 2015ean zehar. Portaera bera erakutsi zuen Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak argitaratzen duen enpresariaren iritziez eginiko inkestatik eratortzen den industria giroaren indizeak (IGI) ere. IGIaren datuek etengabeko hobekuntza erakutsi zuten hilekoak aurrera zihoazen heinean.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Europar Batasuna	-11,4	7,8	2,7	-1,3	-0,7	0,8	2,0
Eurogunea	-12,3	8,2	2,8	-1,0	-0,7	0,5	1,8
Alemania	-15,2	15,6	5,4	0,5	0,4	1,7	2,0
Frantzia	-6,0	1,9	2,7	0,6	0,8	-0,9	1,6
Erresuma Batua	-8,8	3,3	-0,6	-2,7	-0,8	0,9	0,9
Italia	-15,8	6,6	1,1	-2,6	-2,2	-1,2	1,3
Espainia	-10,0	3,6	-0,2	-4,9	-5,2	1,1	3,4
EAE	-12,9	2,5	1,3	-5,2	-2,7	1,5	2,7
AEB (*)	-11,5	5,5	2,9	2,8	1,9	2,9	0,3
Japonia (*)	-21,6	15,6	-2,6	0,2	-0,6	2,1	-1,2


(*)Industriaren ekoizpena.

Iturria: Eurostat, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeriora eta Eustat.


Eustatek 15 jarduera azpiataletarako argitaratzen duen balio erantsiaren zenbatespena erabilia industriaren portaera zehatzago aztertzen denean, begi bistakoa da industriaren balio erantsiari ekarpen handiena egin zioten adarren artean, metalurgia, makineria eta ekipamenduak, eta garraio materialak emaitza positiboak izan zituztela 2015ean zehar. Gainontzeko taldeetatik, goranzko joera orokor horren barruan, azpimarratzekoa da produktu informatiko eta elektronikoen eta altzariak eta bestelako manufakturen bizkortzea.

EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera
Urte arteko aldakuntza tasak


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Industriaren lan merkatuan, aurreko urteetan bizi zen narriadura nolabait moteldu zen eta enplegu galera %0,4an kokatu zen. Datu horrek eta balio erantsi gordinaren gehikuntzak %3,1era eraman zuten produktibitatearen irabazia 2015ean. Tasa hori joera historikoaren oso gaitetik dago.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2012	2013	2014	2015
BEG bolumeneko indizea	-5,2	-2,7	1,5	2,7
BEG uneko prezioetan	-4,3	-2,7	0,2	1,4
Deflatorea	0,8	0,0	-1,3	-1,3
Enplegua	-5,4	-4,3	-2,2	-0,4
Produktibitatea	0,2	1,6	3,8	3,1
Industria produkzioaren indizea	-5,9	-3,1	1,4	3,5
Industria giroaren indizea	-23,0	-21,2	-12,6	-3,9
Ekoizteko ahalmenaren erabilera	74,2	71,7	76,1	79,7

Iturria: Eustat eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioa.

Eraikuntza

EAEko eraikuntzak jarduera erritmo hutsala erakutsi zuen 2015ean zehar, hazkundeko eta murrizketako hiruhilekoak tartekatuz. Hala eta guztiz ere, urteko batez bestekoan jaso zuen hazkunde hutsala (%0,0) 2008tik eskuratu duen emaitzarik onena da. Jardueraren narriadura galgatu izanak iradokitzen du eskariaren eta eskaintzaren arteko doikuntza amaitzen ari dela. Adar horren barnean, hazkundearen geldotasuna ez zen orokorra izan sektorearen azpiatal guztien artean. Izan ere, eraikinen adarra %1,4 hazi zen 2015eko batez bestekoan, baina obra zibilak beherakada garrantzitsuak izan zituen. Azken gertakari hori ez dator bat obra zibilaren azpiatalak 2014an aurkeztu zuen emaitza onarekin. Sektorearen beste adierazle batzuek antzeko joera erakutsi zuten. Esate baterako, SEOPANek ezagutarazten duen lizitazio ofizialak urte arteko aldakuntza tasa altua kalkulatu zuen 2015ean eraikinen atalean eta, aldiz, jaitsiera garrantzitsua obra zibilaren lizitazioan, oso altuak izan ziren 2014ko emaitzekin alderatzen zirelako.

Enpleguaren ikuspegitik, 2015ean eraikuntzak lanpostuak galtzen jarraitu zuen, baina aurreko urteetan baino gutxiago galdu zituen. Oro har, sektore horrek eta industriak tasa negatiboak jaso zituzten enpleguaren bilakaeran.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015
BEG bolumeneko indizea	-7,6	-4,6	-3,2	0,0
BEG uneko prezioak	-11,4	-8,0	-3,7	0,0
Deflatoarea	-4,0	-3,6	-0,5	0,0
Enplegua	-12,9	-11,9	-3,0	-0,3
Produktibitatea	6,0	8,4	-0,2	0,3
Etxebizitzaren salerosketak	-17,2	-28,4	30,5	17,0
Prezioa €/m ²	-3,5	-20,8	4,4	-3,7
Hasitako etxebizitzak	-43,7	-21,8	-7,6	---
Amaitutako etxebizitzak	-24,5	-32,9	-16,8	15,3
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-36,4	-10,2	0,6	40,1
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-28,0	-23,2	11,8	-4,9

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Laburbilduz, eraikuntzak hazkunde ahula eta zalantzez beterikoa izan zuen bai ekoizpenean bai enpleguan. Are gehiago, sektore horrek epe laburrean izango duen bilakaeraz zalantza handiak daude.

Zerbitzuak

EAEko zerbitzuen urte arteko hazkunde tasa %3,0 izan zen 2015. urte osoan. Zenbaki horrek puntu bat eta erdiko hobekuntza ekarri zuen aurreko urtean lortutako balio erantsiaren aldean. Zerbitzuen jardueraren bizkortze esanguratsu hori orokorra izan zen azpiatal guztietan eta, oso bereziki, arlo pribatuari lotuago dauden zerbitzuetan. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen azpiatalak bizitasun handia erakutsi zuen bere jardueran eta lortutako hazkunde tasa %3,1era iritsi zen. Beste aldetik, administrazio publikoak, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen atalak %2,3 handitu zuen bere balio erantsia. Gainontzeko zerbitzuak biltzen dituen hirugarren azpiatalaren urte arteko aldakuntza tasa %3,2an kokatu zen.

Merkataritzari dagokionez, jarduera horretako adierazleek bizkortzeko joera iradoki zuten. Esate baterako, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak hazteko ibilbide sendoa erakusten du txikizkako merkataritzan eta motorreko ibilgailuen salmenta eta konponketan. EAEko merkataritzan susperraldia begi bistan utzi zuen beste aldagai bat enpleguarena da. 2015ean atzean geratu ziren tasa negatiboak eta, maila apaletan izan arren, azpiatal horretan lanpostuak sortzen gutxika hasi zen.

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015
BEG bolumenen indizea	-0,4	-1,1	1,5	3,0
BEG uneko prezioak	0,1	-0,6	1,6	3,0
Deflatorea	0,5	0,6	0,1	0,1
Enplegua	-1,6	-1,6	1,3	2,5
Produktibitatea	1,2	0,4	0,2	0,4
Bidaiarien gualdiak	1,0	-3,1	4,0	8,2
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,91	1,89	1,92	1,91
Plazen betetze maila (ehunekoa)	46,10	44,30	46,40	49,80
Zerbitzuen koiuntura indizea	-6,2	-5,0	1,3	2,6

Iturria: Eustat.

Zerbitzuen koiuntura adierazleak ostalaritzan ere sinalatzen du jardueraren hazkunde nabarmena. Norabide beretik doa Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. Izan ere, turisten batez besteko egonaldia 1,91 egunetan egonkortu zen. Datu hori txikia dela ematen du, baina aldagai horren serie historikoa aztertzen denean, berehala ikusten da goiko langa 1996an lortutako 1,93 egunetan dagoela. Beste aldetik, plazen betetze maila ere areagotu zen eta %49,80an kokatu zen. Beste adierazle batzuek ere urte arteko tasa positiboak eta 2014koak baino askoz ere handiagoak eskuratu zituzten, hala nola gualdien kopuruak eta bidaiarien etorrerak. Orobat, EAEko hotel establezimenduen kopurua zertxobait igo zen eta eskaintako plazen kopurua EAE osoan handitu zen. Bidaiarien etorrera %8,8 hazi zen aurreko urteko emaitzaren aldean eta susperraldi hori orokorra izan zen, bai Estatuko gainontzeko erkidegoetatik iritsitako turisten artean (%7,7) bai atzeritik etorri zirenen artean (%10,6). Hobekuntza horretan nabarmendu behar da Andaluziatik, Balearretatik, Galiziatik, Gaztela-Mantxatik eta Valentziatik heldu ziren bidaiarien hazkunde

esanguratsua. Atzerriko bisitariei dagokienez, azpimarratu behar da Iparramerikako, Australiako eta Argentinako turisten igoera bizia. Edozein modutan, EAEko hiru lurraldeek areagotu zuten bidaiarien kopurua 2015. urtean, aurreko urtean hasitako susperraldia baieztatuz.

ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015
Zerbitzuak guztira	-0,4	-1,1	1,5	3,0
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,5	-1,4	2,0	3,1
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	0,4	0,6	2,1	2,3
Gainontzeko zerbitzuak	0,5	-1,9	0,9	3,2

Iturria: Eustat.

Beste aldetik, garraioaren azpiatalak ere ekonomia susperraldia finkatzen ari zelako zantzu garbiak erakutsi zituen. AENak EAEko aireportuen jardueraz argitaratu dituen datuek bidaiarien hazkunde esanguratsua seinalatzen du, %6,5aren ingurukoa izan baitzen. Forondako aireportuan, salgaien trafikoa oso bizi areagotu zen (%10,0). Aitzitik, salgaien bolumena bere horretan gelditu zen Bilboko aireportuan eta behera egin zuen, ordea, Hondarribiko aireportuan.

Eskaria


Sarrera

EAEko ekonomia jarduerak aurrera egin zuen 2015ean, barne eskariaren sendotasunari esker. Barneko eskariaren bizkortzea familien azken kontsumoaren bultzada sendoan eta kapital eraketa gordinaren hazkunde bizian oinarritu zen. Hain zuzen ere, azken kontsumoan eginiko gastua hazkunde handia jaso zuen osagaia izan zen, gehikuntza tasa %2,8ra areagotu zelako. Bizitasun hori familien kontsumoaren hedatze garrantzitsuari zor zaio. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak ere susperraldia finkatzeko joera garbia erakutsi zuen 2015ean zehar.


Kategoria horretan ekipamendurako ondasunak nabarmendu ziren, beraien bilakaera gainontzeko inbertsioarena baino askoz ere dinamikoagoa izan zelako. Kanpo eskariaren ikuspegitik, EAEko barne produktu gordinari eginiko ekarpena positiboa izan zen, baina hutsala, hamarren bakar batekoa.

Barne eskariaren osagaien hazkundera

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordin



Iturria: Eustat.

Gastua azken kontsumoan

Familien gastua azken kontsumoan %3,1 hazi zen 2015ean urte arteko tasan. Familiek urratsez urrats konfiantza berreskuratu zuten ekonomia bilakaerari buruzko igurikimenak hobetu zirelako, prezioak gutxi hazi zirelako eta, batez ere, lan merkatuaren portaerak hobera egin zuelako. Europako moneta agintaritzak ezarri zituen interes tasek ere lagundu zuten agregatuaren hedatze ibilbidean. Administrazio publikoen gastuak, berriz, hazkunde motelagoa izan zuen urteko batez bestekoan, aldagai horren hazkundera aurreko urteko datua %1,6 gairatu baitzuen.

Kontsumo pribatuaren adierazle guztiek goranzko bilakaera erakutsi zuten. Merkataritzako indizeek, Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, hazkunde tasa positiboak jaso zituzten

2015ean, hainbat urtez jarduera narriatu eta gero. Ondasun iraunkorreko kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioek berriro eskuratu zuten hazkunde handia, %18,1. Bizitasun hori PIVE 8 egitasmoaren diru laguntzak ekarri zuen bultzadak lagundu zuen. Espainiako Bankuak arlo pribatuari 2015ean eman zitzaizkion banku kredituaz jakinarazi dituen datuek aldakuntza negatiboa erakusten dute 2014arekiko, baina jaitsiera motelduz joan zela agerian geratu zen.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015
Soldatapekoen ordainketa	0,1	-3,6	-1,8	1,2	---
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	3,6	2,7	1,3	0,7	0,6
Enplegua	-0,9	-3,3	-3,0	0,2	1,7
Pentsioen kopurua (*)	1,4	1,3	1,6	1,4	1,2
Batez besteko pentsioa (*)	3,1	2,9	3,2	1,8	2,0
PFEZren diru bilketa	6,3	0,2	-1,5	2,9	5,9
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	2,0	1,1	0,5	0,5	0,2
KPI	3,1	2,3	1,6	0,2	-0,3

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez bestekak.

(**) Hilabeteko batez bestekoekin osaturako urteko batez bestekoak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	-1,3	-1,6	-1,1	1,6	3,1
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	0,7	-0,9	-1,8	1,1	1,6
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-0,1	-4,1	-5,1	-2,2	5,2
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-2,0	-4,8	-2,2	2,0	1,3
Automobilen matrikulazioa	-26,4	-13,3	7,9	18,7	18,1
Txikizkako merkataritzaren indizea	-3,6	-4,8	-3,9	0,0	1,7
Azalera handietako merkataritza indizea	-5,7	-3,2	-1,0	-1,3	0,3

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kontsumitzailearen konfiantzak hobera egin zuen 2015ean aurreko urtearekin alderatuta. Laboral Kutxak osatzen duen indizearen arabera, EAEko familiek konfiantza dute ekonomia orokorraren susperraldian eta enpleguaren hobekuntzan. Azken gertakari honek kontsumoarekiko portaeran garbiago hauteman zen.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak hazkundera bizkortu zuen aurreko urteko emaitzarekin alderatuta, eta %2,0ko aldakuntza tasa jaso zuen, 2008tik eskuratu den lehen tasa positiboa delarik. Osagai dinamikoena ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izan zen. Finantzaziorako baldintza onek, ustiapen soberakinen hazkunderak, Europako zikloaren hobekuntzak eta industriaren hazkundera biziak eritmoaren bizkortzea lagundu zuten.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2011	2012	2013	2014	2015
Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua)	-1,3	-7,0	-4,9	-0,6	2,0
- Ekipamendurako ondasunak	3,7	-4,9	-3,4	3,0	6,5
- Gainontzeko inbertsioa	-2,9	-7,7	-5,5	-2,1	0,0
IPI ekipamendurako ondasunak:	11,2	-6,2	-3,2	1,6	7,4
- IPI garraio materiala	13,4	-10,3	-2,9	0,3	3,8
- IPI makineria eta ekipamendua	15,9	-1,1	-0,1	1,3	6,9
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	1,6	2,3	-7,2	-2,3	40,4
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-15,8	-18,5	-3,0	13,3	32,4

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kapital eraketa gordinaren bizitasuna eskura dauden hainbat adierazleren bilakaeran hauteman daiteke. Ekipamendurako ondasunen atalari dagokionez, ondasun mota horren barneko ekoizpenaren portaera hedakorrek eta ekiporako ondasunen inportazioak izan zuen bizitasun handiak hazkundera baieztatu zuten. Era berean, inbertsioaren beste adierazle batek, hain zuzen ere zama ibilgailuen matrikulazioak, gorakada handia izan zuen eta dagoeneko bi urtez

jarraian eskuratu ditu gehikuntza tasa bikainak. Beraz, koiunturako adierazleak suspertzen ziren heinean, EAEko ekonomiaren egoeraz zeuden enpresen igurikimenak hobetu ziren 2015ean zehar. Horrek ikuspegi baikorragoa ekarri zuen barne inbertsioaz eta EAEko enpresa askoren nazioartekotzeko prozesuaren jarraipenaz.

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

1980-2013 epealdian, munduko merkataritzaren hazkundera barne produktu gordinarena baino handiagoa izan zen. Are gehiago, urte haietako askotan bikoiztu egin zuen ekonomiaren gehikuntza tasa. Hala ere, epealdi hurbilenean joera hori bertan behera geratu da eta nazioarteko merkataritzaren gehikuntza askoz ere motelagoa da. Munduko Merkataritzaren Antolakundeak (MMA) argitaratu dituen datuen arabera, nazioarteko merkataritzaren hazkundera bolumenean %2,8 izan zen bai 2014an bai 2015ean, munduko BPGaren gehikuntzatik oso hurbil. Halaber, aurreikuspenek seinalatzen dute 2016an ere ez dela ehuneko hori gaindituko. Txinako ekonomiaren moteltzeak, AEBetako erregaien ekoizpenak bere horretan jarraitzeak, ekonomia nagusien moneta politikan dauden joera kontrajarriek, eta finantza merkatuetako gorakadek eta beherakadek, enpresen eta kontsumitzaileen konfiantzan eragina izan baitzuten, emaitza hori azaltzen dute.


Salgaien merkataritzaren 2015eko bilakaera oso ezberdina zen bolumenean eta dolarretan. Izan ere, bolumenean neurtuta hazkunde motelagoa baina positiboa lortu zen, baina dolarretan neurtuta esportazioen balioa %13,5 murriztu zen 2014ko emaitzaren aldean. Zehazkiago adierazita, aurreko urteko 19 bilioi dolarretatik 2015eko 16,5 bilioi dolarretara igaro zen. Erregaien eta produktu mineralen merkatzeak justifikatzen du merkataritzaren balioak 2015ean izan zuen jaitsieraren erdia baino gehiago, baina nekazaritzako eta abeltzaintzako zein manufaktoretako produktuen merkataritzak ere nabarmen parte hartu zuen jaitsieran. Azken horien artean, bereziki azpimarratu behar dira bulegoko eta telekomunikazioetako ekipamendukoak, produktu kimikoak, eta makinak eta tresnak.

Beraz, dolarretan eginiko kalkulan oinarrituta, produktu naturalak esportatzen dituzten eskualdeek kalte handiagoa pairatu zuten. Hain zuzen ere, Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan esportazioak %21,2 murriztu ziren, oro har, baina Venezuelan %50 baino gehiago jaitsi ziren eta Argentinan eta Brasilen %15. Ekialde Hurbilak (%-34,7) ere beherakada garrantzitsua izan zuen salmentan eta Iraken, Kuwaiten eta Saudi Arabian %40tik gorako


murrizketa jaso zuten. Hala ere, esportazioen bilakaera txarra orokorra izan zen, eremu handi guztiek jaitsiera garrantzitsuak nozitu zituztelako. Esate baterako, Europar Batasunak %12,5 gutxitu zuen esportazioen balioa. Orobat, Estatu Burujabeen Erkidegoak ere %32,0 gutxiago saldu zuen; Afrikak %29,6, bertako herrialde petrolio esportatzaile batzuek %40,0 baino gehiago murriztuta. Azkenik, Asiako jaitsiera %7,9ra iritsi zen. Izan ere, MMAk ezagutarazi dituen datuen arabera, bakarrik El Salvadorren, Txipren, Irlandan, Bangladeshen eta Vietnamen esportazioek hazkunde positiboak lortu zituzten.

Ondasunen esportazioak dolarretan
Urte arteko aldakuntza tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



Japonia



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

EAEko ekonomia ez zen joera orokor horretatik aldendu eta merkataritza salerosketen balioak behera egin zuen. Izan ere, 2009-2013 epealdian kanpo saldoak paper garrantzitsua jokatu zuen EAEko ekonomiaren susperraldian, baina 2015ean ekarri zuen hamarren bakarrak baieztatu zuen 2014ko joera aldaketa. Gaur egun, barne eskariak bereganatu du paper aktiboago hori. Zehazkiago azalduta, Estatura eta atzerrira zuzendutako ondasun eta zerbitzuen esportazio eta inportazio errealek bilakaera negatiboa izan zuten, bi kasuetan murrizketa %0,2 izan zelarik. Termino nominaletan, berriz, balantzea are okerragoa izan zen eta bi aldagai horien beherakada %1,1era zabaldu zen.

Analisia atzerrian saldutako ondasunen transakzioetan (zerbitzurik gabe) fokatzen bada, emaitzak zertxobait negatiboagoak dira. Izan ere, esportazioen eta inportazioen murrizketa areagotu zen, kasu horretan %1,3ra eta %3,0ra arte, hurrenez hurren. Hala ere, petrolioaren eta, neurri txikiagoan, lehengaien merkatzeak 2015eko emaitzak baldintzatu zituzten, baina analisia tonatan egiten bada, prezioaren eragina alboratzeko, emaitza oso bestelakoa da. Hain zuzen ere, esportazioak %3,0 areagotu ziren tonatan neurtzen direnean eta inportazioak, berriz, %14,7. Beraz, atzerriarekin gauzatu zen salgaien trafikoa 2014koa baino handiagoa izan zen, baina salgai horien balioa, bai erositakoena bai saldutakoena, txikiagoa izan zen.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2010	2011	2012	2013	2014	2015 (*)	Milioi € 2015(*)
Esportazioak							
Guztira	19,6	14,6	2,4	-1,6	9,1	-1,3	21.995,3
Ez-energetikoak	19,3	14,4	0,6	-0,8	4,1	1,0	19.598,7
Energetikoak	23,2	16,7	20,8	-8,7	57,5	-17,1	2.356,6
Inportazioak							
Guztira	25,5	12,2	-8,6	0,9	7,4	-3,0	16.821,7
Ez-energetikoak	26,3	11,6	-7,3	-1,9	4,2	14,1	12.206,3
Energetikoak	24,0	13,4	-11,2	6,6	13,4	-30,6	4.615,4
Saldoa							
Guztira (milioi €)	2.445,0	3.178,5	5.146,6	4.670,3	5.377,1	5.133,6	5.133,6
Ez-energetikoak (milioi €)	6.069,9	7.236,8	8.185,0	8.234,6	8.556,5	7.392,4	7.392,4

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaz bestelako produktuek ere prezioen jaitsiera nabaritu zuten, baina neurri txikiagoan. Esate baterako, energiaren bestelako esportazioak %1,0 handitu ziren eurotan, hazkunde motela baita, baina positiboa. Inportazioen kasuan, diferentzia hori are garbiagoa izan zen eta inportazioen gutzitzea %3,0 jaitsi bazen, energiaren bestelako inportazioek %14,0tik gorako gehikuntza kontabilizatu zuten.

Herrialde aurreratuak, ekonomia egoeraren aurrean barne eskaria sendoagoa erakutsi baitzuten, izan ziren EAEko produktuen jasotzaile nagusiak (%1,6). Aitzitik, garapen bidean dauden herrialdeek %11,0 gutxitu zituzten erosketak. Zehatz-mehatz, esportazio guztien %79,4 ELGEra bideratu ziren. Krisia hasi zenetik ehuneko handiena da hori. Haietatik, %64,1 Europar Batasuneko herrialdeetara eramane ziren.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2009	2010	2011	2012	2013	2014(*)	2014(*)
Esportazioak	19,6	14,6	2,4	-1,6	9,1	-1,3	21.995,3
ELGE	18,2	17,6	2,1	-1,0	9,0	1,6	17.429,4
Europar Batasuna	22,3	18,2	-0,1	-3,6	12,3	0,9	14.075,8
Alemania	19,7	23,9	-1,8	-0,4	4,8	2,4	3.218,1
Frantzia	23,5	12,1	8,0	-7,2	1,3	5,6	3.636,1
Erresuma Batua	22,0	24,9	14,8	-13,8	14,0	6,8	1.431,0
Italia	31,1	9,6	-19,7	-3,7	9,9	16,9	1.184,1
AEB	18,1	13,8	0,9	12,4	15,0	0,7	1.717,6
Japonian	45,5	28,8	43,3	20,4	-60,4	87,1	62,7
Errusia	49,2	26,7	-8,8	4,6	-3,6	-11,9	168,9
Txina	55,9	16,1	-11,1	18,1	28,5	-30,5	441,6

(*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Europar Batasunera bideratutako esportazioen hazkundera automobilien (%10,6) eta makina eta tresna mekanikoen (%10,8) salmentak izan zuten gehikuntza biziak ekarri zuten. Horrek hazkunde positiboak EAEko merkatu nagusietan finkatzea ahalbidetu zuten. Merkatu dinamikoena Italia izan zen, bertan saldutakoa %16,9 areagotu zelako. Ondoren, Erresuma


Batua (%6,8) eta Alemania (%2,4) kokatu ziren. Horietan guztietan automobilen salmenta eta material mekanikoa izan ziren esportazioen bultzagile behinenak. Izan ere, hiru herrialde horiek bereganatu zuten saldutako material mekaniko guztiaren %23,7 eta automobilen %46,3 (Europar Batasunean saldutako automobil guztien %86,7). Frantzia joera horretatik zertxobait aldentu zen, automobilen esportazioa sendo (%14,8) hasi zen arren, material mekanikoaren salmentak zertxobait atzera (%-2,8) egin zuelako. Hala ere, erregai mineralen salmentaren gehikuntzak jaitziera hori luzez konpentsatu zuen. Hain zuzen ere, herrialde galiarrak Europar Batasunean saldutako energia guztiaren %46,6 erosi zuen eta 2014an erosi zuenarekin alderatuta, %40,2ko gehikuntza jaso zuen. Tasa horrek adierazten du Frantziara esportatutako erregaien balioak 540 milioi euroko langa gainditu zuela, ordura arte inoiz lortutako diru kopururik gorena baita.

Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoa

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2015eko datuak behin behinekoak dira.

Euroak dolarraren aldean balioa galdu bazuen ere, AEBetara bideratutako esportazioek moteltze nabarmena izan zuten aurreko urteetan jasotako mailarekin alderatuta. Erregai mineralen salneurria merkatu izanak azaltzen du gehikuntza txikiago hori, merkatu estatubatuarrera esportatzen den guztizkoaren %45,2 produktu horiek direlako. Izan ere, AEBetara esportatutako erregaien balioa %4,4 gutxitu zen eurotan, baina salmenta hori tonatan neurtzen bada %32,8ko gehikuntza lortu zen. Beraz, 1.540.847 tona erregai mineral saldu ziren

herrialde horretan, aurrekaririk gabeko zenbaki bat delarik. EAEko eragileek ere jakin zuten yenarekiko truke tasaren diferentzialaz baliatzen eta Japoniara bidalitakoa %87,1 handitu zen, 2004tik inoiz jaso den gorakadarik handiena, nahiz eta herrialde horrekin dagoen merkataritza harremana oso txikia den. Berrero ere, automobilen salmenta garrantzitsua dago gehikuntza horren atzean.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen helburu nagusia Txina izan zen, nahiz eta ekonomia horretara bideratutako salmentak %30,5 gutxitu ziren. Orobat, Brasilen (%-20,8) eta Errusian (%-11,9) ere ez zen tasa positiborik lortu 2015ean. Bi herrialde horiek azken urtean hazteko izan zituzten arazoez argitzen dituzte datu horiek.

Inportazioei dagokienez, aipatua izan den energiako produktuen merkatzeak osorik baldintzatu zuen erosketen beherakada, esportazioen kasuan baino are gehiago. Hain zuzen ere, energiaren atalak inportazio guztien %28,6 bereganatzen du, esportazioen kasuan %11,7 bakarrik biltzen duen bitartean.

EAEko ekonomiak izan zuen hobekuntzaren ondorioz, Europar Batasunetik ekarritako inportazioak %5,5 hazi ziren eta erosketak guztien %60,2 handik inportatu ziren. Maila horrek ia bost ehuneko puntutan hobetu du 2014ko emaitza eta krisi ekonomikoaren aurretik zegoen kuota gainditu du. Kontinente Zaharretik batez ere makineria mekanikoa, burdin galdaketako manufakturak eta ibilgailuak inportatu ziren, baina azken bi urtean eremu horretatik inportatutako energiaren kantitatea bikoiztu da. Izan ere, dolarraren balio irabaziarengatik eta munduan dauden gatazka geopolitikoengatik, Erresuma Batua da gaur egun EAEko eragileen hornitzaile nagusietako bat erregai mineralei dagokienez. Zehatz-mehatz adierazita, merkatu britainiarretik iritsitako inportazioen balioak 1.684 milioi euroko langa gainditu zuen, eta haietatik %67,8 (1.142,5 milioi euro) produktu energetikoak izan ziren.

Hala eta guztiz ere, EAEko ondasunen hornitzaile nagusia Alemania izan zen. Makineria mekanikoaren eta ibilgailu automobilen erosketak %20,6ra arte bultzatu zuen Alemaniatik ekarritako inportazioen balioa. Frantziak ere hazkunde positiboak lortu zituen. Kasu horretan, burdin eta altzairu galdaketaren salmentak eta, neurri txikiagoan, kautxua eta makineria mekanikoarenak argitzen dute gehikuntza hori.

ELGEren gainontzeko herrialdeetan, euroak dibisa nagusien aldean galdutako balioak produktu estatubatuarrak eta japoniarrak garestitu zituen, eta horixe islatu zuten hazkunde tasa apalek. Hain zuzen ere, AEBetatik iritsitako erosketak %2,9 areagotu ziren eta Japoniatik ekarritakoak, berriz, %2,4. Tasa horiek Europako bazkide nagusietan kontabilizatutako emaitzetatik oso azpian daude. Dena dela, tasa horiek garrantzitsuak dira hazkunde positiboetara itzuli direla adierazten dutelako eta, horri esker, 2014an galdutako merkatu kuotaren zati bat berreskuratu da.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN JATORRIA

	Urte arteko aldakuntza tasak						Miloi €
	2010	2011	2012	2013	2014	2015(*)	2015(*)
Inportazioak	25,5	12,2	-8,6	0,9	7,4	-3,0	16.821,7
ELGE	22,4	8,0	3,9	-0,5	11,9	2,7	11.823,9
Europar Batasuna	23,3	7,7	-4,7	-2,8	25,5	5,5	10.134,3
Alemania	22,6	19,2	1,9	-6,2	5,2	20,6	2.379,8
Frantzia	29,4	8,7	-6,1	-1,4	-2,2	11,7	1.775,6
Erresuma Batua	43,5	2,1	-30,6	-5,2	187,8	15,1	1.684,9
Italia	2,1	1,6	4,0	-16,1	2,8	3,5	834,3
AEB	6,1	65,3	-12,9	40,8	-52,5	2,9	389,5
Japonian	25,7	-2,8	1,7	-14,6	-1,0	2,4	127,2
Errusia	36,7	15,6	-24,3	19,0	-36,0	-47,4	844,4
Txina	24,0	2,7	-7,6	-3,3	15,7	25,1	1.172,9

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Azkenik, garapen bidean dauden herrialdeek berriro galdu zuten pisua inportazioen egiturari. 2008an guztizkoaren %43,8 bereganatu ondoren, beraien merkatu kuota %29,7an kokatu zen 2015ean, 14 puntu beherago dagoela. Neurri handi batean, galera hori Errusiatik inportatutakoaren jaitzierak eragin zuen, epealdi berean guztizkoaren %16,5 izatetik %5,0ra bakarrik izatera igaro baitzen. Europak Errusiari ezarri zizkion zigorrak eta petrolio gordinaren merkatzea daude murrizketa horren atzean. Izan ere, energia hornitzaile nagusia izatetik eta bi zenbakiko tasak lortzetik %47,4 jaistera igaro da. Murrizketa horren ondoren, Txina da eremu horretako hornitzaile behinena, bereziki makineriaren salmentari esker, hala mekanikoa nola elektrikoa.

Lan merkatua

Lan merkatuak gradualki hobetuz jarraitu zuen, ekonomiaren bilakaera onak lagunduta, eta 2015ean lana zuten pertsonen kopuruak gora egin zuen aurreko ekitaldian zegoenaren aldean. Horiek horrela, hainbat urtez lanpostuak sortzen egon eta gero, 2009an EAEk beheranzko norabideari ekin zion, 2014an amaitu zena, oraingoan beste hedapen aldi bati ekiteko.

Lanaren mundua aztertzen duten estatistika iturriek bilakaera on hori egiaztatu zuten. Gogoratu behar da BJA inkestak aldaketa metodologiko sakonak izan zituela urte horretan, administrazioaren erregistroekin bateragarriagoa izateko, baina horrek ez zuen diferentzia esanguratsurik ekarri gainontzeko estatistiken aldean. Horrela, iturri guztiek antzeko gehikuntza aurkeztu zuten enpleguaren atalean, hala balio absolutuetan, non hautematen baita poliki-poliki 900.000 landunen kopurura hurbiltzen ari dela, nola erlatiboetan, non muturrak BAI inkestak zenbatetsi zuen %1,3an eta afiliazioak jasotako %1,9an dauden.


Zehatzago azalduta, Gizarte Segurantzaren afiliazioa nabarmen handitu zen aurreko urteetan zeukan kopuruaren aldean eta neurri batean konpentsatu zuen urte horietako galera. Hazkunde tasak %2aren inguruan egonkortu ziren eta tasa hori 2016ko lehen lau hilekoetara ere luzatu da. Zerbitzuek lortu zuten gehikuntzarik handiena (%2,8) eta higiezinaren jarduerak, hezkuntzak eta osasun arloko jarduerak oso ibilbide positiboa erakutsi zuten, hobekuntza orokorreko testuinguru batean.

Orobat, Eustaten kontu ekonomikoak aztertzen direnean, antzeko ondorioak ateratzen dira. Estatistika horren arabera, enpleguak aldeko norabide positiboa erakutsi zuen, urteko batez besteko gehikuntza %1,7an kokatuta. Gorakada horretan zerbitzuek bakarrik hartu zuten parte, industriak (%-0,4) eta eraikuntzak (%-0,3) berriro lanpostuak gutxitu zituztelako, jaitsiera horiek urtean zehar nabarmen leundu ziren arren.


Enpleguaren gehikuntza horrek (%1,7) eta BPGaren hazkundeak (%2,8) bide eman zioten produktibitateari balio historikoaren antzeko irabazia lortzeko 2015ean ere, urte osoan zehar oso hazkunde egonkorra lortuta. Lan faktorearen itxurazko produktibitatearen igoera hori, 2014an gertatu zen bezala, industriak lideratu zuen (%3,1), lanpostuak galduta izan zen arren. Aitzitik, eraikuntzaren (%0,3) eta zerbitzuen (%0,5) irabaziak, ohikoa izan denez, txikiagoak izan ziren.

Enpleguaren bilakaera EAEn Pertsonak


Kontu ekonomikoak




Gizarte Segurantzako afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

BJA inkestaren informazioaren arabera, landunen kopuruaren aldakuntza tasa positibotan (%1,4) kokatu zen eta 2015eko batez bestekoan 890.000 pertsona baino zertxobait gehiago zenbatu zituen lanean. Azken urtean enpleguak izan zuen bizitasun horretan parte hartu zuten gizonek eta emakumeek. Azken hauek zertxobait murriztu zuten gizonekiko duten diferentziala enpleguan.

Lan estatistikek zenbatetsi duten enpleguaren gehikuntza horrek aldeko eragina izan zezakeen lan merkatuaren pertzepzioan, denbora luzez aukerarik gabe egon ondoren. Hori dela eta, pertsona aktiboen kopurua %0,5 areagotu zen 2014ko zenbakiaren aldean. Beraz, partaidetza tasak 2013an hasi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion. Aurreko urtean ez bezala, biztanleria aktiboaren hazkundera ez zen osorik emakumeetara mugatu eta oraingoan emakumeen eta gizonen kopuruak gehitu ziren.

ENPLEGUA ETA PRODUKTIBITATE IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN


Urte arteko aldakuntza tasak

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Enplegua guztira:	-1,3	-0,9	-3,3	-3,0	0,2	1,7
Produktibitatea guztira:	2,0	1,2	1,4	1,3	1,1	1,0
- Enplegua lehen arloan	-0,8	-4,9	0,8	-5,4	-2,2	1,1
- Produktibitatea lehen arloan	21,8	13,2	10,1	2,0	-8,0	6,2
- Enplegua industrian	-3,4	-1,3	-5,4	-4,3	-2,2	-0,4
- Produktibitatea industrian	6,1	2,6	0,2	1,6	3,8	3,1
- Enplegua eraikuntzan	-7,0	-9,9	-12,9	-11,9	-3,0	-0,3
- Produktibitatea eraikuntzan	-1,0	2,6	6,0	8,4	-0,2	0,3
- Enplegua zerbitzuetan	0,2	0,5	-1,6	-1,6	1,3	2,5
- Produktibitatea zerbitzuetan	0,5	0,4	1,2	0,4	0,2	0,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Lan merkatuak 2015ean izan zuen bilakaera positiboaren ondorioz, BJA inkestaren datuek langabeen kopuruaren beherakada nabarmena baieztatu zuten, urteko batez bestekoan 7.000 lagun gutxiago zeudelako lanik gabe, hots, %4,1eko jaitsiera urte arteko tasan. Horri esker, langabezia tasak behera egin zuen hiruhilekoz hiruhileko eta %15,3an kokatu zen urteko batez bestekoan, azken hiruhilekoan %14,7ra jaitsita. Beheranzko joera horrek jarraipena izan du 2016ko hasieran eta %14,4ra murriztu da. Zenbaki horiek Estatuan jasotakoak (%22,1eko langabezia tasa 2015eko batez bestekoan) baino askoz ere txikiagoak dira, baina Euroguneak markatu zuen tasaren gainetik zegoen, azken hori %10,9 izan baitzen.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Enplegua erregulatzeko dossierri dagokienez, adierazi behar da 2015ean azken urteetako dossier kopururik txikiena erregistratu zela, gaur eguneko ekonomia susperraldiaren ondorioz. Hain zuzen ere, 2014an jasotako 1.434 dossierretatik 2015eko 695etara jaitsi zen espedienteen kopurua. Orobat, beraien eraginpean zegoen langileen kopurua 8.108 pertsonatara mugatu zen, duela bi urte zeudenen laurdenera. Jaitsiera horiek orokorrak ziren enplegua arautzeko dossier mota guztietan.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Dossierren kopurua	1.993	1.560	2.636	2.426	1.434	695
Eragindako langileak	35.426	22.072	37.429	31.790	16.747	8.108
<i>Dossier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	1.051	2.203	5.466	5.814	3.196	1.530
- Behin-behineko etetea	32.349	17.991	28.627	24.104	12.091	5.718
- Kontratua amaitzekoa	2.026	1.878	3.336	1.872	1.460	860

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Azkenik, 2014an gertatu zen bezala, kontratazioak nabarmen egin zuen gora (%14,1), hala aldi baterako kontratu gehiago (%14,2) egin zirelako nola kontratu mugagabeak (%11,8) areagotu zirelako. Dena dela, azken mota hori oraindik gutxi erabiltzen da, zeren eta jasotako kontratu guztietatik %5aren inguru bakarrik mugagabeak izan zirelako.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2015	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Guztira	850.108	5,6	2,2	-6,6	1,1	12,1	14,1
Lanaldi osoko mugagabeak	24.830	-7,3	-13,4	5,4	5,4	34,0	12,4
Obra edo zerbitzukoak	154.883	8,1	4,0	-11,8	-3,1	8,7	9,2
Abagunekoak	208.563	11,1	-2,9	-12,5	2,1	13,9	20,5
Lanaldi laburrekoak	332.543	5,0	5,0	1,1	5,3	12,3	12,8
Prestakuntzakoak (*)	9.372	8,1	2,7	-13,7	14,3	36,3	29,8
Gainontzekoak	119.917	-1,9	4,8	-8,9	-6,5	8,5	13,2

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren(SEPE) datuak erabiliz.

Prezioak, kostuak eta soldatak

2015. urtean, prezioen aldakuntzak oso txikiak izan ziren berriro, baita negatiboak ere kasu batzuetan, neurri handi batean lehengaiak, eta bereziki energiak, ezagutu zuen merkatze biziaren ondorioz. Balio negatibo horiek orokorrak izan ziren prezioen adierazle guztietan. BPGaren deflatoarea ere aurreko urteetako datu positiboak atzean utzi zituen. Horrelakorik ez zen 2009tik gertatu.

Zehazkiago adierazita, BPGaren deflatoarea 2014ko %0,2tik 2015eko %-0,1era igaro zen. Halaber, barne eskariaren deflatoarea ere ezohiko balio negatiboa (%-0,1) jaso zuen. Aitzitik, normalagoa da esportazioen (%-0,9) eta inportazioen (%-0,8) deflatoarek aldakuntza tasa negatiboak markatzea, gero eta sakonagoak zirenak, petrolioak nazioarteko merkatuetan bizi zuen merkatzearen ondorioz.

DEFLATOREEN BILAKAERA

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
BPGaren deflatorea	1,5	0,4	0,1	0,5	0,2	-0,1
Barne eskariaren deflatorea	0,9	1,1	0,0	0,8	0,3	-0,1
Esportazioen deflatorea	4,0	6,9	1,2	-1,3	-0,3	-0,9
Inportazioen deflatorea	3,0	7,5	0,9	-0,7	-0,2	-0,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Kontsumorako prezioei dagokienez, KPI indizeak beheranzko joerari eutsi zion eta 2015eko batez bestekoan %-0,3an kokatu zen, aurreko urtean %0,2 hazi zen bitartean. Hauxe da lehenengo aldia serie historiko osoan adierazleak urte arteko aldakuntza tasa negatiboa izan duela urteko batez bestekoan. Lehenago ere aipatu denez, energiaren bilakaerak baldintzatu zuen KPIaren norabidea eta prezioek urteko hileko ia guztietan urte arteko tasa negatiboak erakutsi zituzten. Salbuespen bakarrak udako lehendabiziko hilekoak eta urteko azkena izan ziren.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2011	2012	2013	2014	2015	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	3,1	2,3	1,6	0,2	-0,3	-0,3
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,8	1,5	1,6	0,3	0,7	0,6
KPI landutako elikagaiak (%14,1)	3,8	3,3	3,1	0,0	1,1	0,2
KPI industriako ondasunak (%26,2)	0,7	0,3	0,5	0,1	0,3	0,1
KPI zerbitzuak (%41,5)	2,0	1,7	1,8	0,6	0,8	0,3
Hondarreko inflazioa (%18,2)	9,5	6,1	1,4	-0,6	-4,5	-0,9
KPI landugabeko elikagaiak (%7,0)	1,5	2,7	3,7	-1,2	1,9	0,1
KPI energia (%11,2)	15,3	8,3	0,0	-0,1	-8,4	-1,0

Iturria: INE.

Zehatz-mehatz adierazita, petrolioaren salneurriak oso maila apalean jarraitu zuen 2015ean eta balio txikienak urte amaieran markatu zituen, upelaren prezioa 40 dolarren azpitik kokatu zenean. Jaitsiera horren atzean, eskariaren eta eskaintzaren aldetiko arazoak zeuden. Azken horren ikuspegitik, Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeko (LPEE) herrialdeek ekoizpen maila altuari eutsi zioten. Aitzitik, prezio apalek eta inbertsio txikiagoak ezohiko iturrietatik erauzitako petrolioaren ekoizpena murriztu zuten AEBetan. Horri esker, gehiegizko eskaintza zertxobait murriztu zen. Beste aldetik, petrolio gordinaren eskaria zertxobait handitu zen 2015ean, aipatu den bezala, prezioak jaitsi zirelako. Hala ere, eskaria ahula izan zen oraindik.

Prezioen beherakada hori ez zen kontsumoko prezioen indizearen gune egonkorrenera igaro. Izan ere, azpiko inflazioak, aurreko urteko moteltze nabarmenaren ondoren, %0,7an kokatu zuen 2015eko batez besteko gehikuntza tasa, urte osoan zehar goranzko joera etengabea erakutsiz. Beraz, azpiko inflazioa maila txikietan ibili zen arren, indize orokorraren datuen gainetik egon zen urte osoan. Kontuan hartu behar da energia alorreko produktuak ez daudela azpiko inflazioaren barnean, baina beraien merkatzeak enpresen kostuak jaitsarazi zituztela eta horren bitartez jaitsiera azpiko inflazioan parte hartzen duten beste produktuetara ere hedatzen dela. Hori horrela izanda, kontsumoko prezioen igoera apaltzeko zeharkako bide bat da.

Azpiko inflazioa osatzen duten taldeek 2014koak baino balio handiagoak izan zituzten. Esate baterako, landutako elikagaiak nabarmen bizkortu zuten igoera 2015ean, aurreko urteko hainbat hilekotan datu negatiboak jaso ondoren. Beste aldetik, energia ekoizkinez gabeko industria ondasunak zertxobait suspertu ziren, neurri batean euroaren balio galerak eman zien bultzadari esker. Azkenik, zerbitzuek gorakada arina izan zuten 2014ko mailaren aldean (urte hartako %0,6tik 2015eko %0,8ra igaro zen), baina 2014aren aurretiko urteetan jaso zuen mailatik oso azpitik zegoen.

Aitzitik, hondar inflazioa nabarmen murriztu zen eta serie historiko osoaren balio txikiena jasotzera iritsi zen (%-4,5), erregaien merkatzearen ondorioz. Hori dela eta, energiaren atalak oso aldakuntza tasa negatiboak aurkeztu zituen. Aldi berean, hondar inflazioaren beste osagaia, hots, landu gabeko elikagaiak, ez ziren merkatu. Are gehiago, garestitzea handiagoa izan zen atal batzuetan, hala nola fruta eta barazkietan, udako hilekoetan tenperaturak ohikoak baino altuagoak izan zirelako.

KPIa osatzen duten taldeei erreparatuta, adierazi behar da inflazio orokorraren jaitsieran ekarpen handiena egin zutenen artean egon zirela, espero zitekeen bezala, petrolioaren eragina gehien pairatzen dutenak. Izan ere, gehien merkatu ziren taldeak garraioa eta etxebizitza izan ziren. Garraioari dagokionez, aurreko urteko emaitza ia lau puntutan jaitsi zuen eta 2014an jasotako %-0,5 hartatik 2015eko %-4,1era igaro zen. Etxebizitza, berriz, balio negatibotan kokatu zen (%-1,7) lehen aldiz serie historiko osoan.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Indize orokorra	1,7	3,1	2,3	1,6	0,2	-0,3
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,7	2,2	2,7	2,9	-0,6	1,4
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	10,7	9,8	5,8	6,0	1,0	0,9
- Jantziak eta oinetakoak	-0,2	0,3	0,2	0,1	0,2	0,4
- Etxebizitza	3,1	7,8	5,7	1,1	2,0	-1,7
- Etxeko hornidura	0,9	1,5	1,1	2,0	-0,4	0,0
- Medikuntza	-0,1	-0,6	-0,7	7,5	4,3	0,1
- Garraioa	6,5	7,7	4,3	0,3	-0,5	-4,1
- Komunikazioak	-0,7	-0,8	-3,4	-4,3	-6,1	-1,7
- Aisia eta kultura	-0,9	0,3	1,0	1,6	-1,2	-0,2
- Irakaskuntza	2,2	1,3	2,8	3,0	2,7	2,2
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,7	1,7	1,0	1,1	0,7	0,3
- Besteak	2,1	2,7	2,4	2,1	1,2	1,7

Iturria: INE.


Beste muturrean, talde batzuek urte arteko aldakuntza tasa positiboak aurkeztu zituzten, baina gehikuntza horiek apalak izan ziren. Zehazkiago, %2,0ko erreferentzia gainditu zuen talde bakarra hezkuntza izan zen (%2,2), unibertsitateko tasen igoerak baldintzatuta. Ondoren, besteak izeneko taldea kokatu zen, %1,7ko igoera batekin, aurreko balioa baino puntu erdi bat gorago baitago. Haren atzetik elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%1,4) kokatu ziren, dagoeneko aipatua izan den elikagai freskoen garestitzearengatik. Azkenik, edari alkoholdunak eta tabakoa dago (%0,9), nahiz eta beheranzko joerari eutsi zion. Gainontzeko taldeek oso balio txikiak, baita negatiboak ere, jaso zituzten.

KPlaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak


Indize orokorra: EAE




Indize orokorra: Europar Batasuna



Azpiko inflazioa: EAE




Azpiko inflazioa: Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eurostat.

Inflazioa goratzeko presiorik ez zegoenez, EAEk Eurogunearekin zeukan aldeko inflazio diferentzialari eutsi zion. Lau taldek bakarrik jaso zituzten Europakoak baino prezio igoera handiagoak. Beraien artean, hezkuntza aipatu behar da berriro, unibertsitateko tasengatik. Europako inflazioak ere beheranzko joerari jarraipena eman zion eta 2015ean inoizko baliorik txikienean kokatu zen (%0,0), hileko batzuetan tasa negatiboak jasoz.

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea. 2015eko batez besteko balioak



Iturria: INE eta Eurostat.

Konsumoko prezioekin gertatu zen bezala, industriaren prezioek ere aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten eta beheranzko joerari segida eman zioten. Are gehiago, jaitsiera erritmoa biziagotu zuten eta aurreko urteko emaitzaren aldean 1,5 puntu jaitsi ziren (2014an jasotako %-1,1 hartatik 2015eko %-2,6ra igaro ziren). Beheranzko norabide horretan, indize orokorra osatzen duten talde guztiak parte hartu zuten, neurri handiago edo txikiago batean. Izan ere, ekipamendurako ondasunek izan ezik, balio positiboetara itzuli zirelako, gainontzeko ondasunek prezioak merkatu zituzten. Horrek iradokitzen du prezioen jaitsierak bereziki ekoizpenaren lehen faseei eragin ziela, bai lehengai energetikoak bai gainontzekoak merke saltzen zirelako.

Inflazioaren maila apalak soldaten erosteko ahalmen erreala hobetu zuten. Horri esker, soldaten aldetik ez zen aparteko presiorik egon eta langile bakoitzeko batez besteko kostua 2014koa baino %0,6 txikiagoa izan zen. Beraz, dagoeneko bi urtez jarraian adierazle horrek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen. Bai soldaten kostuak (%-0,3) bai gainontzeko kostuek

2015eko urteko txostena

(%-1,5) behera egin zuten. Jaitsiera horri dagokionez, adierazi behar da beheranzko erritmoa azken hiruhilekoetan apaldu bazen ere, Estatuarekiko aldea nabarmena izan zela, zeren eta Estatuak hazkunde tasa positiboetara (%0,6) itzuli baitzen.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Indize orokorra	3,3	8,1	2,4	-0,7	-1,1	-2,6
- Kontsumoko ondasunak	0,2	3,1	1,8	0,1	-0,2	-0,6
- Kontsumo iraunkorrak	-0,4	0,6	0,5	0,2	-1,2	-0,3
- Kontsumo iragankorrak	0,5	4,0	2,3	0,0	0,1	-0,7
- Ekipamendu ondasunak	0,1	1,5	1,2	1,3	-0,4	0,3
- Bitarteko ondasunak	3,1	6,5	0,2	-1,4	-0,7	-0,8
- Energia	11,7	21,7	7,8	-1,8	-3,6	-11,5

Iturria: Eustat.


Lan kostuen bilakaera langile bakoitzeko

Urte arteko aldakuntza tasak

Euskadi



Espainia



Iturria: INE.

Azkenik, hitzarmen kolektiboek 2012an hasi zuten moteltzeko joerari jarraipena eman zieten eta %0,6ko gehikuntza tasa apala jaso zuten. Hala eta guztiz ere, argitu behar da EAEko negoziazio kolektiboaren eraginpean dauden langileen kopurua murriztu dela. Soldaten igoera handiagoa izan zen hitzarmen berrien kasuan (%0,9), ekonomiak hobera egiten zuen heinean hobekuntza hori kontuan hartu zutelako.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Indarrean dauden hitzarmenak	1,9	3,6	2,7	1,3	0,7	0,6
- Urtean zehar sinatutakoak	1,7	3,4	2,0	1,0	0,5	0,9
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	1,7	3,8	2,7	1,3	0,8	0,6
- Enpresako hitzarmenak	2,4	3,1	2,6	1,2	0,6	0,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu eragiketa bateratuei dagokienez, adierazi behar da 2015eko aurrezki gordina aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zela. Zehazkiago adierazita, beherakada hori %11,3ra iritsi zen.

Aurrezki gordinaren jaitsiera, neurri handi batean, gastu arrunten igoeraren ondorioz (%2,3) gertatu zen, eta diru sarrera arruntak ere aurreko urteko datuaren aldean handitu ziren arren (%1,5), gutxiago hazi ziren. Gastu arrunten artean, langileen gastuak (%2,0) eta funtzionamendukoak (%1,1) areagotu ziren, taldearen atal garrantzitsuenak baitira. Aitzitik, gastu finantzarioek, lehenengo aldiz urte batzuen ondoren, beherakada nabarmena (%-12,8) izan zuten.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK

Mila euro

	2015	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2010	2011	2012	2013	2014	2015
1. SARRERA ARRUNTAK	13.587.712	2,5	3,9	-1,2	-2,3	4,1	1,5
2. GASTU ARRUNTAK	12.897.996	-2,8	1,8	-4,6	1,1	3,0	2,3
Langileen gastuak	2.278.380	-0,6	-0,5	-6,4	4,3	1,3	2,0
Funtzionamenduko gastuak	3.842.674	-0,3	0,1	-2,2	-1,6	2,7	1,1
Finantza gastuak	284.318	79,5	70,9	22,3	9,4	10,8	-12,8
Transferentzia arruntak	6.492.625	-6,0	2,3	-6,5	1,3	3,4	3,9
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	689.715	199,8	81,4	70,9	-41,9	27,6	-11,3
4. KAPITALEKO SARRERAK	147.787	84,8	54,9	35,6	-6,5	-19,3	-57,6
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.130.656	-1,1	-22,8	11,3	-32,3	-1,3	-14,6
Inbertsio errealak	378.123	-1,0	-13,2	-12,1	-9,6	-23,8	-27,4
Kapitaleko transferentziak	752.533	-1,1	-30,0	33,0	-46,4	22,0	-6,3
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	-293.153	31,5	52,7	42,8	36,4	-34,1	47,8

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.

Zergen diru bilketari dagokionez, aurreko bi urteetan lortutako gehikuntzei segida eman zien, nahiz eta hazkunde erritmoa zertxobait galgatu zen. Zehatz-mehatz adierazita, 2015ean zergen bidez bildu ziren diru sarrera guztiak 12.600 milioi eurora iritsi ziren, 2014ko kopuruaren aldean %2,4ko gehikuntza delarik. Hazkunde apal hori 2015eko BPG nominalarena (%2,7) baino apur bat txikiagoa bakarrik izan zen.

Hazkunde handienak PFEZk lortu zuen (%5,9) 2015ean eta, aldi berean, diru bilketari kantitate handiena ekarri ziona izan zen. Ekonomiaren hobekuntzak eta, bereziki, enplegu sorrerak lagundu zuten zerga horren diru bilketa areagotzen. Alde batetik, lanaren etekinengatik eginiko atxikipenek berriro izan zuten urte arteko gehikuntza bat (%1,6) eta, beste aldetik, kuota diferentzial garbia (aitorpenaren kanpainan itzultzen den diru kopurua) aurreko urtekoa baino askoz ere txikiagoa izan zen, kenkarietan azken erreforman onartu ziren hainbat mugaren ondorioz.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2015	2010	2011	2012	2013	2014	2015
PFEZ	4.647.680	3,8	6,3	0,2	-1,5	2,9	5,9
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.473.913	3,4	3,2	-1,0	-1,8	1,8	1,6
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	174.821	-15,6	-3,0	11,0	-11,1	-8,7	-11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	81.804	2,7	3,1	3,0	-1,8	-3,3	-1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	53.045	4,8	-19,0	36,1	47,6	11,9	59,7
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	42.406	---	---	---	---	---	25,5
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	145.432	-1,5	-3,6	-1,9	-5,1	-2,6	3,8
- Kuota diferentzial garbia	-323.740	6,1	17,7	3,8	7,2	6,9	35,1
Sozietateen gaineko zerga	1.039.051	-19,9	17,5	-2,5	7,5	-4,7	-10,4
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	174.820	-15,6	-3,0	11,0	-11,1	-8,7	-11,0
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	81.804	2,7	3,1	3,0	-1,8	-3,3	-1,8
- Ondare irabazien atxikipenak	53.045	4,8	-19,0	36,1	47,6	11,9	59,7
- Kuota diferentzial garbia	729.381	-23,7	27,3	-7,2	13,3	-4,5	-13,8
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	-54.610	15,6	-37,5	-60,1	31,6	-77,8	-669,3
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	113.688	-11,9	9,4	16,1	17,7	6,6	1,2
Ondarearen gaineko zerga	151.036	-92,7	-5,8	---	19,6	10,4	-0,9
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.428	---	---	---	---	---	98,6
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	37.304	---	---	---	---	15,1	32,2
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	5.958.577	-2,5	7,3	1,0	1,7	1,2	1,6
BEZaren bertoko kudeaketa	3.645.246	26,1	-10,9	-4,4	6,0	13,2	2,5
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	101.716	28,0	-49,4	-18,9	-10,0	25,5	12,7
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	43.645	-15,0	-27,8	-29,4	-6,9	-4,9	19,3
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	16.525	-7,6	-27,9	-29,9	-21,4	9,3	10,8
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.776.933	2,1	-8,3	0,9	10,7	0,9	0,9
Aseguru sarien gaineko zerga	72.462	4,3	1,8	-4,6	-3,8	-1,1	3,2
Joko jardueren gaineko zergak	4.100	---	---	---	---	---	-46,6
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	3.011	---	---	---	---	---	266,7
Iraungitako zergak	-11.284	-4,2	-1,9	0,4	-74,7	-97,6	3.891,3
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.446.008	16,7	-11,7	-3,6	5,9	9,1	2,1
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	115.277	9,1	0,1	-0,4	3,5	-8,5	10,9
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	11.519.862	6,4	-2,3	-1,1	3,5	4,7	1,9
BEZaren doikuntza	1.299.112	34,9	-3,8	7,8	5,9	8,5	5,1
Zerga berezian doikuntza	-206.344	-9,4	52,6	-57,4	-96,0	-18,9	5,2
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.612.630	8,4	-1,9	-0,6	3,0	4,8	2,4

Iturria: Foru Aldundiak.

Aitzitik, sozietateen gaineko zergak tasa negatiboak (%-10,4) jaso zituen berriro, aurreko urtekoak baino are handiagoak. Kasu horretan, enpresei itzultako dirua 2014koa baino nabarmen gehiago izan zen. Bi bilakaera kontrajarri horien ondorioz, zuzeneko zergen multzoak %1,6ko aldakuntza tasa izan zuen, aurreko urteetan eskuratu zirenetatik gehiegi aldentzen ez dena.

Beste aldetik, BEZaren diru bilketak hirugarren urtez jarraian egin zuen gora, baina 2014koa baino erritmo geldoagoan, familien kontsumoa oso sendo hazi bazen ere. Zehazkiago adierazita, %13,2 batetik %2,5 ahul batera igaro zen hazkunde hori. Diru bilketaren moteltzea, neurri batean, petrolioaren merkatze biziak azaltzen du, zerga horren diru bilketan eragin garrantzitsua izan zuelako.

Azkenik, fabrikazioko zerga berezien bitartez bildutako diru kopurua %0,9 areagotu zen, hain zuzen ere 2014an jaso zuen hazkunde bera delarik. Gehikuntza horri hidrokarburoek bakarrik egin zioten ekarpen bat, gasolinen eta gasolioen kontsumoaren joera positiboak lagunduta. Gainontzeko produktuek tasa negatiboak jaso zituzten. Beraien artean, tabako laboreen gaineko zerga berezia eta argindarra zergapetzen duena nabarmendu behar dira, biek dirua biltzeko ahalmen handia dutelako. Lehenengoari dagokionez, karga tasak igo izanak diru bilketa gutxitu zuen. Bigarren kasuan, ordea, salbuespenen igoerak ekarri zuen diru bilketaren jaitsiera. Aurreko guztiaren ondorioz, zeharkako zerga guztien multzoaren diru bilketa %2,1 gehitu zen, aurreko bi urteetan lortutako tasak baino askoz ere beherago dagoen ehuneko bat delarik.

Finantza arloa

2015ean, nazioarteko finantza merkatuetan tentsioa nabarmen areagotu zen. Banku zentral nagusien moneta politika ezberdinek, azaleratzen ari diren ekonomia batzuen ahultasunak, lehengaien merkatzeak, Eurogunean Greziarekin gauzatu diren negoziazioek eta tentsio geopolitikoko uneek ziurgabetasuna sortzen lagundu zuten. Hala eta guztiz ere, nazioarteko finantza sistema oraindik oinarritu zen likidezia handian eta konfiantza erakutsi zuen banku zentralen eta moneta politiken ahalmenean ekonomien norabidea finkatzeko.

Zehazkiago azalduta, Europako Banku Zentralak (EBZ), ekonomia hazkundearen ahultasunari eta eremuan zegoen deflazio arriskuari aurre egiteko, erreferentziako interes tasa %0,05ean utzi zuen eta ezohiko neurriak hartu zituen tonu hedakorra areagotzeko. Izan ere, urtarrilean hedatze kuantitatiboko (QE) egitasmo bat martxan jarri zuen, merkatuan likidezia dosi garrantzitsua sartu zuena (60.000 milioi euro 19 hilekotan, geroztik, abenduan beste sei hilekoz luzatu zena). Neurri horrek kreditua ekonomia errealean suspertzea zuen helburu. Xedea hau da: bonuak kantitate handian erosita, beraien errentagarritasuna, ordurako txikiak baitziren, are gehiago jaitea eta inbertitzaileen interesa gutxitzea, dirua errentagarritasun handiagoa duten beste inbertsio batzuetara bideratzeko. Europako Banku Zentralaren (EBZ) parte hartzearen ondorioz, diru bakarra onartu duten 19 herrialdeetatik erdiak baino gehiagok bi urtera arteko zorra jaulki ahal izan zuten interes tasa negatibotan.

BANKU ZENTRALEN INTERES TASAK

	99-02	03-06	07-10	2011	2012	2013	2014	2015
Europako Banku Zentrala	3,40	2,40	2,10	1,0	0,75	0,25	0,05	0,05
Erreserba Federala	3,75	3,18	1,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,50
Japoniako Bankua	0,30	0,20	0,30	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1
Ingalaterrako Bankua	4,90	4,50	2,10	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
Txinako Bankua	---	---	6,1	6,56	6,00	6,00	5,60	4,35
Indiako Bankua	---	6,63	6,30	8,50	8,00	7,75	8,00	6,75
Brasilgo Banku Zentrala	---	16,4	11,25	11,00	7,25	10,00	11,75	14,25

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Kontuan hartuta datu ekonomikoek AEBetako hazkundera eta enplegua nahiko sendoak zirela frogatzen zutela eta inflazio apalaren arriskua iragankorra zela, Erreserba Federalak abenduko bileran erreferentzia tasa puntu laurden bat igotzea erabaki zuen, %0,25etik %0,50era doan urkila batean utzi arte. Finantza aktiboen erosketa unea dagoeneko 2014an amaitua zen, baina ekonomia estatubatuarra 2008tik zegoen diruaren prezioa ia zeroaren mailan. Gehikuntza horrekin, Fedek amaiera eman zion aurrekaririk gabeko moneta pizgarrien epealdi luze bati. Japoniako Bankuak, berriz, urte arteko inflazio tasa %2,0aren inguruan modu egonkorrean lortzeko helburuarekin, bere horretan utzi zuen bere moneta politika oso hedakorra eta interes tasek %0,0 jarraitu zuten. KPIaren bilakaera apala (%0,8) ikusita, 2016ko urtarrilean Japoniako Bankuak esku hartzeko tasa %-0,1era murriztu zuen, 2010eko urritik egin zuen interes tasen lehen mugimendua izan zena. Azkenik, Ingalaterrako Bankuak moneta politikan aldaketarik

egin behar izatea saihestu zuen eta erreferentziako tasak %0,5ean utzi zuen, zorraren erosketa egitasmoak 375.000 milioi liberatan jarraitu zuen bitartean.


Azaleratzen ari diren herrialdeetako banku zentralak oso erabaki heterogeneoak hartu zituzten. Esate baterako, Txinako Banku Popularrak sei aldiz murriztu zuen esku hartzeko tasa eta hainbat aldiz gutxitu zuen kutxa koefizientea, herrialde hartako ekonomia biziagotzeko. Indian eta Brasilen inflazioaren presioek, edo presio faltak, banku zentralen jarduera baldintzatu zuten. Zehazkiago adierazita, Indian inflazioaren kontrolak bide eman zuen erreferentziako tasa lau aldiz jaisteko (%8,0tik %6,75era arte). Brasilen, ordea, prezioen gorakada biziak bertako gobernuak behartu zuen herrialdeko erreferentzia tasa igotzera, %14,25era arte, azken bederatzi urteko tasarik gorena delarik.

2015eko ekainean, Grezia erreskatatzeko programa berriaren negoziazio akordioak geldirik geratu izanak sortu zuen ziurgabetasunaren aurrean, herrialde hori eurotik irten zitekeelako beldurra (Grexit) hedatu zen. Uztailean, bertako gobernuak beste erreforma sorta bat eta are handiagoak ziren murrizketa batzuk aurkeztu ondoren, Eurotaldeak oniritzia eman zion hirugarren erreskateari. Hala eta guztiz ere, hasierako adostasun faltak eta balizko Grexit bati zioten beldurrak zorraren merkatuak tenkatu zituzten eta, balizko kutsatze bati inbertitzaileek erakutsi zuten beldurra dela eta, Europako periferiako herrialdeen arrisku sariak handitu ziren. Izan ere, Espainian, herrialdearen arrisku saria martxoan 90 oinarri puntuen azpitik egotetik uztaileko une batzuetan 160tik gora egotera igaro zen. Horren ondorioz, 10 urterako bonuen interes tasa inoizko mailarik txikienetatik (%1,14) %2,42ra igo zen, 2014ko abuztutik jaso zen handiena.


Mugimendu bera gertatu zen gainontzeko zor europarrarekin, intentsitate gehiagorekin edo gutxiagorekin. Baita EBZren programatik kanpo daudenetan ere. Izan ere, 10 urterako bonu britainiarra martxoko %1,5etik bi ehuneko puntuak garbi gainditzera igaro zen. Akordioa sinatu ondoren, herrialde horretako arrisku saria, eta baita herrialde gehienetan ere, 2015eko hasieran kotizatu ziren mailen azpitik kokatu ziren. Salbuespena Espainia izan zen. Alde batetik, gobernurik osatu ez izanak eta, beste aldetik, Kataluniako jarrera sezesionistak mesfidantza areagotu zuten inbertitzaileen artean, eta kalte egin zioten arrisku sariaren jaitsierari.

Bund alemaniarrekiko gainkostua
Ehunekoak


Espainia




Italia



Grezia



Portugal




Iturria: Espainiako Bankua.

Euroaren benetako truke tasa nominala, merkataritzako 38 bazkide nagusien diruaren aldean neurtuta, %3,0 baino gehiago merkatu zen urte arteko terminoetan. Diru bakarrak balioa nabarmen galdu zuen urte hasieran, baina joera hori egonkortu zen 2015eko bigarren hiruhilekoan, nahiz eta gorabehera handiko uneak bizi zituen Greziako krisiarekin lotuta. Udako hilekoetan, euroak berriro irabazi zuen balioa, azaleratzen ari diren herrialdeen erritmo apalak ziurgabetasuna areagotu zuelako eta arriskua saihesteko nahia handitu zelako. Hala ere,


joera hori ez zen finkatu eta urte amaieran behera egin zuen berriro euroaren kotizazioak, Atlantikoaren beste aldean bideratu zen moneta politika oso ezberdina izan zelako, Fedek interes tasak igotzeari ekin ziolako. Mugimendu horien ondorioz, euroak nabarmen galdu zuen balioa dolarraren (%-11,0), libera esterlinaren (%-5,9) eta yenaren (%-10,3) aldean. Baita Suitzako frankoaren aldean ere, bertako Banku Nazionalak euro bakoitzeko 1,20 frankoko gehienezko ratioa bertan behera utzi eta gero.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yena




Iturria: Espainiako Bankua.

Espainiako Burtsa, bi urtez goranzko bilakaera izan ondoren, gainontzeko merkatuetatik aldendu zen, Ibexena baino jaitsiera txikiagoak edo, kasu askotan, igoerak jaso zituztelako. Izan ere, Europako burtsek nagusiki etekin positiboak eskuratu zituzten 2015ean, neurri handi batean EBZren moneta politika hedatzaileak bultzatuta. Azpimarratzekoa izan zen Irlandako (%33,5), Italiako (%12,6) eta Portugaleko (%18,6) burtsen gorakada. Aitzitik, eremu negatiboan kokatu ziren Suitzako (%-1,8), Erresuma Batukoa (%-4,9), Greziakoa (%-23,6), udako hilekoetan itxita egon ondoren, eta Espainiakoa (%-7,2). Zehazkiago, Ibex 35 indizeak 2011tik, %13,1eko galera izan baitzuen urte horretan, inoizko balantzerik okerrena erakutsi zuen 2015ean. Espainiako enpresa handienek argitik ilunera joan zen urte bat bizi zuten, ekonomiaren ziurgabetasunengatik eta tentsio geopolitikoengatik.

AEBetan, sei urtez jarraian igoerak bildu ondoren, II Mundu Gerratik bizi den goranzko aldi luzeena izan zena, baina harez geroztik merkatu estatubatuarrak moneta politikaren norabide aldaketa eta munduko ekonomiaren ahultasuna nabaritu zituzten. Horren ondorioz, bertako indize behinenek errentagarritasun zertxobait negatiboak jaso zituzten 2015ean. Esate baterako, S&P indizea %0,7 jaitsi zen eta Dow Jones, berriz, %2,2. Aitzitik, Nasdaq 100 indizea, osagai teknologiko handia duena, %8,4 igo zen. Horrek 2000ko burbuila teknologikoak eztanda egin baino lehenagoko uneetan eskuratu zituen maila maximoetara itzuli du indize hori.

Urte baterako euriborraren bilakaera



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.

EBZk 2015ean erakutsi zuen tonu hedatzailea banku arteko merkatura ere iritsi zen, interes tasak berriro jaitsi baitzituen. Hain zuzen ere, urte baterako euriborra %80 murriztu zen 2015eko amaieran, azken hamarkadako beherakadarik handiena delarik. Indizea %0,298an zegoen 2015eko hasieran eta %0,059ra arte jaitsi zen urtean zehar. Balantze orokorrak interes tasaren beherakada garrantzitsua uzten badu ere 2015ean, euriborrak gorakada txikiak ezagutu zituen abuztuan, Txinako hazkundeaz zeuden zalantzenetatik eta yuanaren balio galerarengatik, eta abenduan.

2015ean, kontsumitzaileen konfiantza gehitu izanak, interes tasen jaitsiera orokorrak eta etxebizitzaren merkatuari buruzko igurikimenen hobekuntzak EAEko biztanleen aurrezki metatua desblokeatu zuten eta finantzaziorako eskaerak areagotu. Beste aldetik, izakinen eta kapital zirkulatuaren hazkundeak, maileguan emateko irizpideak laxatu izanak eta, neurri txikiagoan, kapital finkoaren inbertsioaren gehikuntzak enpresak animatu zituzten kreditua eskatzeko. Kreditu eskaeren gehikuntzak, entitateen arteko lehia biziagoak, ekonomia jardueraz zeuden igurikimenen hobekuntzak eta sektore eta enpresa batzuen kaudimen handiagoak kreditu pribatu gehiago ematea eragin zuten.


Aurrekoaren ondorioz, arlo pribatuari emandako kredituen kopurua %0,4 hazi zen eta lehen tasa positiboa eskuratu zuen 2010etik. Tasa horren ondorioz, arlo pribatuaren zorpetze maila 63.400,3 milioi eurora iritsi zen. Hoberantz egin bazuen ere, kreditu pribatuaren bilakaera oso urrun dago krisi ekonomikoaren aurretik jaso zituen bi zenbakiko hazkunde tasa haietatik. Alde hori ulertzeko, ekonomiaren egoera, hobetu den arren, eta bankuen balantzen onbideratzea hartu behar dira kontuan.

Aurreztaileek 2015 urtea gogoratuko dute aurreko urteko joerari segida eman ziolako, aurrezteko produktuen errentagarritasuna etengabeko jaitsiera leuna izan zuelako. EBZren interes tasa %0,05ean izoztuta 2014ko irailetik (inoiz markatu duen tasarik apalena baita), gordailuaren erraztasun negatiboa (%-0,20) eta Espainiako Bankuak estratasak mugatuta, eperako gordailuek berriro behera egingo zutelako espero behar zen kontua da. Hain zuzen ere, 2015ean gordailuen kopurua %12,0 jaitsi zen. Horrek esan nahi du eperako gordailu pribatuetara bideratutako kantitate pilatua 30.000 milioi euroko langatik zertxobait gorago kokatu zela eta 2007ko lehen seihilekoan kontabilizatutako mailara itzuli zela. Eperako gordailuek erakargarritasuna galdu zuten, finantza erakundeek kontu ordainduak bultzatu zituzten, eperako produktuek dituzten baldintzen antzekoetan diruaren erabilgarritasun handiagoa ematen dutelako. Aurreko guztiaren ondorioz, ageriko eta aurrezkiko gordailuak


sendo hazi ziren, eperako gordailuen beherakada konpentsatuz eta gordailu pribatuen guztizkoan %3,3ko balantze positiboa utziz.

Kredituen eta gordailuen bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.